



Ainhoa ASTIZ
BKTko jokalaria
Espainiako
selektzioarekin Kroaziara
→ 35

Feriak

Donezteben eta Lesakan

BORTZIRIAK → 18

Jendetza Euskara
Mankomunitatearen bestan

SUNBILLA → 25

Malerrekako gazteen
lehen futbito txapelketa

GOIZUETA → 28

Eskualdeko gazteen
egunpasa larunbatean

URDAZUBI → 36

Zeharbide proiektuaren
esleipena bertan behera

Mila jokalari baino gehiagok hasi dute denboraldi berria taldekako kiroletan

KIROL GEHIGARRIA → 42-65

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea eta Xaretako ehunka gaztek eskubaloia, futbola, saskibaloia, errugbia, areto-futbola eta sokatira aukeratzen dute.



ARGAZKIA: ONDIKOL

ELKARRIZKETA → 3

Udalbiltza auzia



Udabiltzaren kontrako epaiketa bukatu eta sententziaren zain gelditu dira auzipetuek, tartean Jasone Astibia zubietarra eta Oskar Goñi beratarra.

GIZARTEA → 33

Sahararen aldeko
Elkartasun Eguna



Saharaztan Baztan Bidasoko Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldeak antolatuta, hilaren 27an Sahara izanen da gogoan Erratzun.

ZOZKETA → 71

TTIPI TXARTELArekin
beti irabazten da!



ESKAINZA BEREZIAK



muebles
ORDOKI
altzariak

Estilo ugariko mobleak
ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tel. 948 63 77 80
LESAKA

Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute

Blue icon: Kartoiak ontziak, paperrak, egunkariak, aldizkariak.

Yellow icon: Plastikoko ontziak, latzak, brikak.

Green icon: Beirako botilak, flastokak, potekak.

Barango Uda
Bartzelako Hiru Herrietako Mankomunitatea
Molenako Zerbitzu orokorreko Mankomunitatea
ECOEMBES
SEPARAR PARA RECICLAR

2003an abiatu zuten Udalbiltzaren aurkako polizia operazioa, eta zazpi urte eta erdiren buruan, uztailean hasi eta urriaren 26an bukatu zen epaiketa. Auzipetuen artean

daude Jasone Astibia eta Oskar Goñi, Zubieta eta Berako zinegotzi ohiak eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kide izandakoak. Hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen du Fiskaltzak

bientzat, eta sententziaren esperoan dauden honetan, epaiketaz eta espero dutenaz mintzatu da TTIPI-TTAPA eurekin. Bide batez, emandako babesak eskertu nahi izan dute.

Oskar GOÑI eta JASONE ASTIBIA | Udalbiltzako auzipetuak

«Judizialki epaiketa irabazi dugu baina indar politikoak erabakiko du epaia»

G. PIKABEA | BERA/ZUBIETA

Nola joan dira zazpi urte eta erdi hauek?

O. GOÑI: Orain, gibelera begiratzea errazagoa da, baina niretzat zailena beti ezjakintasunean bizitzea izan da. Orain badakigu zazpi urte eta erdi direla baina behin ere ez genekien noiz eta zer izanen zen. Atxilotu gintuztenean ez genuen ulertzen zergatik egin gintuzten; inkomunikazioa akaututa harrিতa irakurri genituen leporatzen dizkigutenak. Espetxean sartutakoan ere ez genekien noiz arte egonen ginen, eta atera ginenean, baldintza nahiko gogorrekin atera ginen. Beti izan dugu itzal bat gibelera, eta oraindik ez da erabat baztertu, sententziaren zain gaudelakoz.

Nola joan da epaiketa?

J. ASTIBIA: Luze. Gu prestatuak joan ginen eta argi genuen zertan eta zergatik ari ginen, baina beraiek oso itxura eskasa eman dute. Izugarriko amorrua ematen du bizitzan dituzun gauzak harat joateko utzi eta han desastre hori topatzeak: testiguak ezertaz gogoratzten ez, Fiskalak apenas egin du lanik...

O.G.: Lekukoen kasuan, adibidez, 80-100etik gutti batzuk baino ez dizkigute onartu. Eta beraiek nahi bertze aurkezteko aukera izan dute, denak poliziak. Guk bizitza ge-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jasone Astibia eta Oskar Goñi, Udalbiltza auzian auzipetutako eskualdeko biak.

nuen jokoan, eta eurek ez etorrita ere ez zen deus pasatzen: bat oporretan, bertzea jubilatua edo eri... Bertze gauza aipagarriak ere izan dira. Xabier Alegria lankidearen tortura testigantza hunkigarria, adibidez. Edo azken egunetan, gure defentsa on-dorioetara ailegatu zenean, maisuki erakutsi zuen gezurrezko gaztelu bat egin zutela, eta gaztelu hori osatzeko zeuden harriak banaka bota zituen.

J.A.: Ez zegoen Udalbiltzaren aurkako sumarioa aurreikusia. Ehunka telefono dei eta grabazio daude eta batean ere ez ga-

GEZURRA

«Gure defentsak maisuki erakutsi zuen gezurrezko gaztelu bat egin zutela, eta gaztelu hori osatzeko zeuden harriak banan-bana bota zituen».

HERRIGINTZA

«Argi ikusi da elkarlanean sekulako aurrerapausoak ematen ditugula oso medio gutxirekin, helburuak eta sekulako herri atxikimendua lortzen ditugula. Horrek beldurra ematen die».

ra ageri. Beste erakundeek Udalbiltzari buruz baloratutakoak izan dira frogak gisa aurkeztutakoak. Momentu surrealista ere izan dira. Neska bati 1978ko agiriekin zerikusia izatea leporatzen zioten eta urte hartan neska 3 urte zituen. Eta peritoek dokumentuak modu objektiboan aztertu behar badituzte ere, gure kasuan erregistrotik hasita dena hiruzpalau poliziaren artean egin da. **Udalbiltza ETArekin lotuko lukeen frogarik ere ez dute aurkeztu...**

O.A.: Duela 15-25 urteko ETaren asmoez hitz

egiten ziguten, eta gu orain zazpi urte zertan ari ginen hitz egiten ari ginen. Argi utzi dugu, gauza bat dela ETaren barne eztabaidatzen zena, eta bertzea Udalbiltzak egiten zuena. Baina herri plataformak sortu ziren garai politikoan sortu ginen, eta Euskal Herriko sektore baten presentzia hauteskundeetan egon zedin eragozteko Udalbiltza erabili zuten.

Zer espero duzue?

O.G.: Judizialki epaiketa irabazi egin dugu, eta ez dago gu zigortzeko arrazoirik, baina azken unean gibeletik dagoen indar politikoak erabakiko du epaia batera edo bertze bideratu. Guztiontzat zigorra ematea astakeria litzateke, baina Udalbiltzaren atea ez dute irekita utzi nahi. Udal hauteskundeak heldu dira, alde batetik elikatu nahian ari diren garai itxaropentsua hor dago, abertzaleen elkarlana... Sententzia erabat garbia emateak hauteskundeetan abertzaleen karta bat ematea suposatuko luke.

J.A.: Epaiketan argi ikusi da elkarlanean sekulako aurrerapausoak ematen ditugula oso medio gutxirekin, sekulako herri atxikimendua lortzen ditugula. Horrek ere beldurra ematen die.

Elkarrizketa osorik: www.ttipi.net-en.



ARGAZKIA: MIKEL GEREKA
Urteak dira Saharako neska-
mutikoak gure artera etortzen
direla uda pasatzera.

GIZARTEA → BOLUNTARIO TALDEAK

Gizarte laguntza eskaintzen duten taldeek boluntarioak behar dituzte

Bertzearen larruan jartzeko eskatu dute

Hamar dira gure eskualdean gizarte-laguntza eskaintzen dute boluntario taldeak. Boluntarioekin soilik osatutako erakundeak dira batzuk,

eta boluntarioen laguntza ere behar dutenak bertzeak. Bakoitza bere eremuan baina guztietan daude musutruk ari direnak.

G. PIKABEA

Adinekoak, etorkinak, ezindu psikiko eta fisikoak, Saharako haurrak... Bakoitza bere esparruan dabil, baina guztien lana da azpimarratzekoa. Izan ere, edozeinek esfortzurik gabe egindako gauza ttiki hori, beharra duenarentzat haundia izan daiteke. Musutruk boluntario lana egiten duten 10 talde daude eskualdean.

ANFAS

Garapenean atzera-pena duten edo jasateko arriskua duten 6 urte arteko hurrekin aritzen dira Baztan-Bidasoan.

ASPACE

Berako Uxane zentroan ezinduak diren heldu eta hurrekin psikomotriate eta bertzelako tailerrak egiten dituzte.

DIZDIRA-ANASAPS

Arazopsikikoak dituzten senitartekoekin egiten dutelan Dizdira-Anasaps-en. Etxalarren du egoitza elkarte honek.

BIDELAGUN

Bertzeak bertze, gaitxo eta adinekoei laguntza ematen diete, etxe edo egoitzetan. Horrez gain, ahalmen urritasun-

ak dituzten pertsoekin aritzen dira, baita etorkin eta talde minoritarioekin ere. Aurtan, gainera, 10 urte bete ditu Baztan, Bertizarana eta Malerrekako elkarte honek.

CARITAS

Pisu tutelatueta bizi diren edo laguntza behar duten bertze adinekoei konpainia egiten diete Donezteben.

ELKARRIZAN

Berako San Jose zahar etxeko adinekoei irteerak egiten dituzte Elkarrizanen.

NAGUSILAN

Lesakako zahar etxean eta etxeetan dauden adinekoei konpainia egiten diote talde honetan.

Elkarrizan eta **Nagusilane**k Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean proiektu berri bat dute eskuartean: adinekoei zahar etxe eta etxeetara bisitak egin, helduen alfabetizazioa, baliabi-

degutiko hauretorkinentzat eskola laguntza eta garraioa bezalako zerbitzuak zabaldu nahi dira.

SAHARAR H. A. E. T.

Saharar herriaren egoeraz sentsibilizatzeaz gain, udan Saharako gaztetxoak etxean hartzen dituzten bi talde daude gurean: Baztan, Bortzirak, Baztan eta Bertizaranan bat –Saharaztan– eta Leitzea, bertzea. Saharaztanek, hain zuzen, Sahararen aldeko Elkartasun Eguna antolatu du hilaren 27an Erratzun. Xehetasunak 33. orrian.

XAULI

Ezinduekin aisialdirako ekintzak egiten dituzte Baztanen larunbatetan.

Boluntarioekin bakkirik osatuak dira azken zazpiak, eta langileez gain, boluntarioen beharra ere badutenak lehenbiziko hiruak.

MUNDU HOBEAREN BILA

Bertzelako mundua posible dela sinisten due-

BOLUNTARIOEN TESTIGANTZAK



Xari LASA | Elizondo

«Hemengo jendeak etorkinekiko distantzia mantentzen du, lana kentzera etorri direla uste duelako»

Duela 10 urte sortu zen Bidelagun elkartea, eta geroztik hortxe dabil Xari Lasa elizondarra, ahizparekin batera. Hasiera hartan, elkartearekin konpromisoa hartzea «zaila» izanen zela pentsatu arren, «ez dela horrela» erakutsi diote urteek. Nabarmen-tzeko boluntario lana egiten du, eta gainera «arras kontent» dago egiten duenarekin. Alde batetik, Bidelagunek Elizondon, utzitako bajera batean, duen jantzi-dendan egoten da: «jendeak emandako arropa saltzen dugu, euro bat eta bortz euroko prezio simbolikoan». Asteartez ere, beharra baldin badago, ireki egiten dute. Erosle gehienak etorkinak direla aitortu arren, «bartzandarrak ere gero eta gehiago etortzen direla» kontatu digu. Dendaren bidez, «hainbertze kulturatako jendea lagun egin» omen du, baina bere irudiko «hemengo jendeak etorkinekiko distantzia mantentzen du, lana kentzera etorri direla uste duelako». Hortik aparte, zahar etxera ere joaten da konpaina egitera, eta «hori da gehien betetzen nauena». Asteazkeno egiten du zahar-etxean hitzordua: «joandakoan triste aurkitzen ditut, erdi lo, deus egin gabe, eta solasa eman eta 10 minuturen buruan, kontent jartzen dira», dio. Solasean, kartetan, paseatzen, kantuan... Denarik egiten dute, eta bai zaharrak eta bai Xari ere gustura: «pilak kargatuta ateratzen naiz». Izan ere, bere hitzetan, «zaharrei entzun eta entzun egin behar zaie; akaso beti gauza bera errepikatuko dute, baina berdin dio». Bide batez, «Bidelagunen gurdira igotzeko» gonbitea ere luzatu du, «merezi duelako».



Mikel GEREKA | Ituren

«Atzerrian ibili naizenetan oso ondo tratatua sentitu izan naiz beti. Nik ere gauza bera egin nahi dut»

Saharaztan Baztan-Bidasoko Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldeko kide izateaz gain, Bidelagun elkarteko lehendakaria ere bada Iturengo Mikel Gereka. Bada-ki, beraz, zer den boluntario lana egitea. 2002an hasi zen Bidelagunen, ikasketa batzuk tarteko, praktikak Bidelagunen egitea erabaki zuenean. Elkartearen barne, atzerriarren eremuan mugitu da batez ere, «atzerriarren gaian, oraindik emateko eta ikasteko asko dugulako». Eta bertetik, sei urtez Saharako haurrak ere hartu dituzte etxean. Bertzearen larrian jartzeko gogo horrek bultzatuta hasi zen boluntario lanean Gereka: «atzerrian ibili naizenetan, oso ondo tratatua sentitu izan naiz beti, eta benetan eskertu izan dut bertzeek nireganako izan duten hurbilpena eta ateak irekiak izatea. Nik ere gauza bera egin nahi dut. Ez dugu ahaztu behar euskaldunok migratzaileak izandakoak garela, eta oro har, oso ondo hartuak izan garela. Orain harrera gizartea izatea tokatzen zaigu». Gerekaren hitzetan, «gizartea gero eta individualista goa da eta horren aurka egin nahi dut». Lan komunitarioan sinistu nahi duela ere aitortu digu, eta bat bertzearen laguntzarekin, gure inguru hurbila alda daitekeelakoan dago: «gure inguru hurbila aldatuta, egoera ere nolabait alda daiteke», dio. Iturengoarentzat «injustiziaren kontra gaudenontzat boluntario lana ate bat da», eta horrekin batera, bestearen larrian jartzeko saiakerara bat egiteko gonbitea ere luzatu dio jendeari. Izan ere, «edozeini gertatzen ahal baitzaio, egoera okerragoan egotea».



Alfonso OBESO | Lesaka

«Zaharren irria ikusteak bakarrik bete egiten zaitu. Jendeari probatzeko eskatuko nioke»

Alfonso Obeso izan zen Lesakako Nagusilan Adinekoen Elkartearen bultzatzaile nagusia. Urteetan han eta hemen informazioa jaso ondotik, 2009ko otsailean zabaldu zituen ateak Lesakako Nagusilanean. Lehendik ere, zahar etxera bisita batzuk egiten zituen Obesok, baina gehiago zabaldu nahian, egunkari batean Nagusilanean sortzaileetako bati egindako elkarrizketa batek arreta piztu, eta Nagusilanean ekitaldi-tara joaten hasi zen. Nagusilan Nafarroan sortu nahi ote zuen ere proposatu zioten, baina lanean ari zela eta, ezezkoa erran ziren. «Jubilatutakoan, Nagusilanean Iruñeko elkartera joaten hasi nintzen eta 2009an Lesakan animatu ginen». Kontatu digunez, eta taldearen aurkezpenean ere halaxe adierazi zuten, «lehen helburua Lesakako beharrak betetzea da, baina Bortziritara zabaltzea ere gustatuko litzaiguke». Horretarako, ordea, taldeak gehiago indartu beharko luke. Hiru lagun dira gaur egun Lesakako Nagusilanean, «baina ilusioa badugu, eta behar tiki batzuk guttienez betetzen ditugu». Zahar etxera bisitak egiteaz gain, etxez-etxe ere ibiltzen dira. Boluntario lana eginda, «satisfazio pertsonal haundiarekin» gelditzen dela aitortu digu Obesok: «zaharren irria ikusteak bakarrik bete egiten zaitu». Eta bera nola sentitzen den ikusita, jendeari «probatzeko eskatuko nioke». Dena den, herritar arruntei ez ezik, eskualdeko enpresei ere luzatu die mezua: «denak pasatu gara inguruko enprestatik, eta gizarte lanean inplikatzeko eskatuko nioke».

lako, urteak daramatza boluntariotza lanaren alde egiten Isidro Herguedasek. Bidelagun elkarteko kidea da bera, baina bertze elkartei ere botatzen die eskua.

Bere irudiko, «eskualdeko jendeak bertze-ari laguntzeko gogo badu, baina aurreiritziak egiten hori mugatu egiten dute». Jendeak

«konpromisoari beldurra» diolakoan dago, baina ez omen da horrela: «askatasun osoa dago». Bide batez, herritarrei begiak irekitzeko ere eskatu die: «ongi irekitzen ditue-nean hainbertze hutsune ikusiko ditu inguruan. Eta gauzak gisa batera egin beharko liratekeela erraten dutenei boluntario talde-

tara etortzeko erranen nieke. Salbatzaileak ez da etorriko, gu gara salbatzaileak. Eta hori gure buruan sartu arte ez dugu deus ere eginen. Posible da bertze mundu bat, beheitik hasi eta boterearen aurka joanez. Boluntariotza ez dago gobernuari mesede egiteko, dauden hutsuneak aldarrikatzeko baizik».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Zein goxo bizi naizen

Zein goxo bizi naizen nire aferetaz bakarrik arduratuz: etxeko kontuak, lana, familia, eta kitto. Gaietakoak konplikazioak dira: Herriko Elkarte, Musika Eskola, Kultur komisioa, Guraso Elkarte, Herriko bestak antolatzea, dantza-futbol-pilotako ardura... puf-puf... horiek guztiak buruhausteak baizik ez dira.

Gainera, nik ez dut horretarako balio, gainera ez dut astirik, gainera badira ni baino hobeki eginen duten bertze batzuk...

Aizu-aizu, baina, zer moduz biziko ginen herrieta-ko elkarerik gabe?, Dantza-futbol-pilota talderik gabe?, Guraso Elkarerik gabe?, herriko bestarik gabe?...

Beharbada laister jakinen dugu, gero eta zailagoa baita halako gauzetarako arduradunak aurkeztea. Bah!, ni tranquil nago. Nolazpaite konponduko dira. Ni ederki aski bizi naiz nire gauzetan... gaietakoak norbaitek eginen ditu!

Zer moduz biziko ginen elkarerik gabe? Dantza-pilota-futbol talderik gabe?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Zaindu maite duzun hori

Bortziritarren %10a bildu zen urriaren 31n Beran Euskara Mankomunitatearen logoa osatzera. Horiek bakarrik ez, aunitz gehiago gara, bai Bortzirietan, bai bertze eskualdetan gure hizkuntza maite dugunak. Baina maite duguna zaindu beharra daukagu. Dakigunok, maite duguna nonahi eta noiznahi erabiliz. Ez dakitenek, ikasiz. Maitatzeko, lehenik ezagutu egin behar baita.

Nabarmentzekoak



Sonia LOPEZ
Elizondoko liburuzaina

Azaroaren 3an inauguratu zen ofizialki garai bateko Elizondoko Abastos Plazan egin den udal liburutegi berria. 1.385 bazkide ditu eta kopurua handitzea espero du Soniak.



Gustav HENNINGSSEN
Zugarramurdin omendua

Herri tradizioak eta batez ere sorgintza joziren pertsonen memoria berreskuratu du urtetan Danimarkako ikertzaileak. Azaroaren 6an omenaldia jaso zuen Zugarramurdin.



Rakel RICO
Berako argazkilaria

EHNE sindikatuaren enkarguz *Emakume baserriarren begirada* argazki erakusketa prestatu du Berako gazteak. Azaroaren 19tik 29ra Donezteben ikusgai izanen da.

Atzera begira → 1991.11.21 / TTIPI-TTAPA 74. zbk



Soldaduskaren aitzinean, gazteen bide ezberdinak TTIPI-TTAPAN

Nork erranen zigun duela 19 urte derrigorrezko soldaduska zer zen esplikatu beharko genienik belaunaldi gazteenei? 1991n, «Soldaduskaren aitzinean, bide ezberdinak aukeratzen dituzte gaur eguneko gazteek» titularpean erreportajea osatu zuen TTIPI-TTAPAK. Hego Euskal Herrian gazteen %46ak eta Nafarroan %35ak uko egiten zion orduan soldadu joateari. Intsumisioak eta objezioak ez zuen orduan halako indarrik gure eskualdean, baina bide horiek aukeratutako hiru gaztek, Koldo Erkizia lesakarrak, Fernando Oiartzun leitzarrak eta Patxi Petrirena sunbildarrak ere beraien esperientzien berri eman ziguten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia, Patxi Dutoournier...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Kalabazak bide bazterrean

Mikel TABERNA

Kalabaza eder bat hustu, eta harekin buru baten iduria egin: bi zulo begitako, bertze bat sudurrarentzat, eta ebaki luzeago bat ahoaren formarekin, hortz xorrotzak eta guzi. Hondarreko, kandela biztu bat sartu haren barrenean, eta iluntzean bide bazterrean utzi. Inor pasatzen bazen ondotik, karriketari argirik ez zegoen garaian, pentsatzen ahal duzue

zer ikareria hartuko zuten! Omiatsaindu egunaren bezperako arratsan, noski! Badakizue gau horretan hilen arimak paseietan ibiltzen direla!

Aspaldi egiten ziren horrelako kalaberak gure bazter hauetan. Alkaia-gan, behinik behin, basterri baten parean iatsu urtero paratzen zituzten. Artistak ziren halako gauzak egiten, eta bromazale samarrak ere bai. Gero usadioa galdu zen. Eta orain berriz hasi omen da fuerte, telebistan amerikarrek egiten dutela ikusita. Zer bait moderno bezala! Izorra hadi, Piarres! Europako tradizio zaharra omen da, Ameriketara joan ziren irlandarrek eraman zutena.

Bertze ohitura bat, bederen, izaten zen azaroaren lehenaren inguruan, Baztan-Bidasoalde honetan. Santu guzien egunean, haurrek estanpa bat hartu eta *Marautxe bat, marautxe bat* erranez xoxa eskatzen zioten jendeari. Gero, arimen alde errezatzeko obligazioa zuten, baina parte horretaz ahanzi egiten ziren gehienetan. Marautxe hori, *marabeditxo* ote den diote batzuek, aspaldi desagertu zen diru klase baten izena.

Gure sinesteen haziarekin, makina bat istorio bada hilen eta arimen gainean. Kanposantuetan gertatuak ere bai. Harako kontrabandista harena, konparazio baterako. Azienda batzuekin Bidasoa gurutzatu behar omen zuten gauaz Berako Ubela alde horretan. Mugan hogeitatu buru hartu eta, pasalekura ailegatu zirelarik, hantxe izaki bi guardia zibil, kanposantuko paretaren kontra, zigarroa erretzen. Denbora pasa, eta ez mugitzen handik. Zer egin? Orduan, norbaiti gogoratu zitzaion kanposantura sartzea, eta, behin barrenean zela, haga batekin eltzetuetako bati zapel okerra kentzea burutik! Haien lasterrak! Oraindik ez omen dira gel-ditu!

«Gero usadioa galdu zen. Eta orain berriz hasi omen da fuerte, telebistan amerikarrek egiten dutela ikusita. Zer bait moderno bezala! Izorra hadi, Piarres! Europako tradizio zaharra omen da, Ameriketara joan ziren irlandarrek eraman zutena»

Herrietako isiltasuna

Pello APEZETXEA

Hau da zoramena! Hemengo isiltasuna eta bizimoduaren patxada! Horrelakoak edo antzekoak entzun ditugu, behin baino gehiagotan, hirietan bizi diren jendeak gure herrietan agertzen direnean, aste buruetan edo besta arteko zubi deitzen ditugunetan. Eta, egia erran, ez da harriztekoa gisa horretakoak adieraztea hiritarrek. Milakako jende multzoek osatutako hirietan zarata eta presakako ibilera eguneroko ezaugarriak dira, eta oinezko eta autoen arteko borroka, ea nork lehenago gurutzatu karrika. Gure herrietan, berriz, horietako deusik ez da.

Zarata eta presa osasunerako kaltegarritzat jotzen dira, estresa eta larritasuna dakartelako, eta horrek, erraterako, buruan nahiz bihotzean eragin ez onak dituelako. Horrelako girotik isiltasun eta patxadazkora igarotzean lasaitu egiten gara, eta gure gorputzaren ongizatea sumatu. Hori izan daiteke, neurri batean bederen, hiritarren kanpora ateratzeko joera gero eta handiagoa.

Dena den, ohiturak eramaten du aunitzetan gure bizitza alde batera edo bertze, eta ibilera hori aski erraz bihurtzen dugu ohitura; ez bada, behinik behin, min eta ezinegonezko egoera. Zera, alegia, toki zaratsuan bizitzera ohitu egiten gara, isilean bizitzera bezala; eta berdin presaz bizitzera ere. Ez dugu pentsatzen ahal, horregatik, hirietako bizilagunek hiria hustu eta herrietara alde egingen dutenik, bakarren batzuk ezik. Etxea, bai, egiten ahal dute herri ttikian, mendi zoko batean, behar bada. Baina bertzea utzi gabe, soilik tarteka egun batzuk egoteko. Horretarako lehen ez bezalako sos irabaziak ere badirelako. Baina zarata, presa, larritasun, jende multzo handiko egoerara ohituta dagoenak, gauza horien beharra sentitzen du. Errotazaiak bezala, errota soinuarekin lo egitera ohitua, errota gelditu eta isiltasuna egitean ernatzen da.

«Zarata eta presa osasunerako kaltegarritzat jotzen dira, estresa eta larritasuna dakartelako eta horrek, erraterako, buruan nahiz bihotzean eragin ez onak dituelako»

«Baina zarata, presa, larritasun, jende multzo handiko egoerara ohituta dagoenak, gauza horien beharra sentitzen du. Errotazaiak bezala, errota soinuarekin lo egitera ohitua, errota gelditu eta isiltasuna egitean ernatzen da»

Irakurleak mintzo

Berako Udal Planaren eremu berde publikoak. Zalainen industriari oparitan emandenen antzekoa, Iturlandetan erosi nahi

[Joxejuan LANZ APEZTEGIA](#)
[JabierMari IRAZOKI AGESTA](#)

Azkeneko TTIPI-TTAPA aldizkarian, Berako berrietan agertuz, Udalak «Bi familia-ko etxebizitza eraikitze-ko lur eremua salgai» jarri duela. Urriaren 7an www.ttipi.net agertuz albiste bera, baina datu gehiagorekin, besteren artean, enkante publikora ateratzeko hasierako prezioa 206.000 eurokoa zela.

Albisteak jarraitzen du erranez, enkantetik ateratako diruarekin «Udal Planean eremu berde izendatua dagoen» lur bat erosi nahi dela, eta eremu osoa garatu, Udal Planak agintzen duen bezala.

Salerosketa honekin ez gara sartuko, ezta ere proiektatzen denarekin («eremu berde zabal bat egiteko aukera dago»), nonbait Udal Planak agintzen duena errespetatu nahi da, eta berdegune publikoak aintzat hartzen dira.

Zalain auzoan, ordea, juxtu kontrako neurriak hartzen ari da Udala, garatu gabe zegoen in-

dustrialdea urbanizatu denean.

Erranen dugu, behar diren pausoak emanez, Plan-barruko aldaketa ttikiak egin daitezkeela. Bainan Zalainen ez da horrela egin, gainera indarrean dagoen Plana ez da errespetatu eta ondorioz, besteak beste, gutti gorabera, 1.900 metro koadroko berdegune publikorako izendatua zegoen lur zati bat suntsitu dute (tartean 100 urte baino gehiago zituzten zuhaitzak) eta azalera hori pribatizatu dute.

Internet bitartez, hau dena planotan ikusi daitezke siun.navarra.es helbidean sartuz. Begiratu Berako Udal Planari dagokion 002 plano eta ikusiko duzue Zalaingo industriarako markatzen duen eremua (bilatu kokapena katastroko datoen bitartez: pol,3 : partzela 71 eta ingurukoak). Begiratu ere 005 plano, lurzoru publikoa eta pribatua bereixten duena.

Industrigunea urbanizatu eta repartzelatu egin delako aitzakiarekin, ikusiko duzue, jabeago pribatuak bereganatu dituztela 2.700 metro koadroko azalera duen lurzoru publikoa (berdegunea eta bidea).

Zalain auzoko bizilagun batzuek baditugu bi urte ari garela Udal Planak agintzen duena defendatzen, horretarako Administrazioarekiko Auzibide-Errekurtsoak jarriak ditugu, uste dugulako Berako Udalaren jokaera larria dela.

Afera honetaz norbai-



Bota bertsoa

Oier AMIANO (Baztango bertso eskola) • Doinua: Laurogeita hamar urte

Ehiza garaia!

Uda atzean utzita udazkenera pasatu baita paisaia guztia goitik behera aldatu soineko berdea kendu eta marroia paratu hego-haizean ufadak ere ditugu sumatu (bis) ehiza garaian gaudela beharko dugu onartu usoek gure zerua pasan dute zeharkatu ehiztariak garai hontan zaizkigula aztoratu ehizara ez joatea beraientzat da pekatu (bis)

Denboraldia hastean uso hiltzea da meta hortarako egunero usategitara buelta postu barrenera sartu ta han geldirik gordeta zeru zabalai begira zer suma eta zer gerta (bis) beren eskuetan beti kargaturik eskopeta Semi-automatiko Paralela Superpuesta gero herrira jaitsita histori ta kontaketa ezertxo ez bota arren ahoa lumez beteta (bis)

tek gehiago jakin nahi balu, jar dadila harremanetan idatzi hau sinatzen dutenekin.

Zorionak eta mila-mila esker

[Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Euskara Batzordeak](#)

Urriaren 31n, Beran, Mankomunitatearen Eguna izan zen. Antolatzaileon aldetik erran behar dugu aurreikuspen guztiak gainditu genuela. Goizean Matzadada futbol zelaian Mankomunitatearen logotipoa osatzeko 400 lagun biltzeko deia egin genuen. Zenbaki hori erraz gainditu genuen: 750 lagun elkartu ginen! Altzaterainoko martxa jendetsua bezain alaia

izan zen, eta, zer erranik ez, Altzateko ekitaldia, une hunkigarriak eman zizkiguna. Bazkariko aurreikuspenak ere erabat bete ziren: ia 300 lagun elkartu ginen Altzateko frontoian; arratsaldeko giro beroa bermatua zegoen.

Udaberri partean erabaki genuen horrelako egun bat antolatzeko. Geroztik, Bortzirietako hainbat talde, elkarte eta eragilerengana joan gara, gure asmoaren berri emateko. Guztien aldetik harrera ezin hobea izan dugu, eta hasieratik agertu dira parte hartzeko eta laguntzeko prest. Eskerrik eman behar dizkiegu denei, eta, bereziki, egun horretan parte hartu eta lagundu diguten guztiei.

Mankomunitatearen Eguna egiten dugun balorazioa ezin hobea

da: Bortzirietan euskararen aldeko indar handia dagoela ikusi dugu, berriz ere.

Euskara batzordeek egiten duten lana eza-guna eta, gainera, ongi baloratua dela ikusi dugu.

Herritarrek mankomunitatea babesten dutela ikusi dugu. 20. urteurrena ospatzeaz gainera, etorkizunean ere mankomunitatea euskara normalizatzeko tresna eraginkorra dela aldarrikatu dute.

Luze joko luke balorazio guztiak aipatzeak. Irudiak garrantzia handia duen garaian bizi garenenez, urriaren 31n Beran ateratako argazkiarekin gelditzen gara.

Herritarren jarrera agerian gelditu da. Espero dugu udalek neurri berean erantzutea.

Zaindu maite duzun hori!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Urtebetetan edo urte eta erdian dolua zertxobait gailentzen da. Epe horretan hobekuntzarik ez dela egon nabaritzen badugu, dolu patologikoa duela esaten dugu (...) Gure gizartean heriotza tabu bat da. Aldiz, heriotza bizitzaren zati bat da. Horrela bada, beste gauza baten inguruan bezala hitz egin behar da. Naturaltasunez ikusi behar dugu heriotza».

Ainhoa ARBURUA
Senda Fundazioa –Etxalar–
BERRIA, 2010.10.31

«Zorteaeren dosia behar da gauzak ongi joan daitezen. Ia etsita nengoenean, aukera hau aterata da. Roberto Marronerekin (Flaminia) topo egin nuen Eroica txirindularien martxa batean. Solasean aritu ginen, baina taldea itxia zuen. Alemaniako Eurobike azokan berriz egin genuen topo, eta hasi nahi nuen galdetu zidan, orduan hasi zen dena eta pozik nago».

Patxi VILA
Berako txirindularia
GARA, 2010.10.25

11 galdera labur

Xabier Legarretaren arreba ala Aranoko Maitane: nola ezagutzen zaitu herritik kanpo jendeak?

Bada ni bere arreba bezala ezagutzen nauenik, baita alderantziz ere, baina hain gara anai-arrebak gusatu egiten zaigula!

Aranoko beheko auzoa omen da itsasoa ikus daitekeen Nafarroako herri bakarra. Harro erraten al duzue hori?

Zugarramurdiko kanpandorretik ere ikusten dela diote, nik etxe-ko terrazatik ikusten dut!

Zer du Aranok bertze herriek ez dutena?

Karreteraren partez, gurdi bide bat!

Aranoko txokorik ederrena?

Burningo txabola.

Behera doa biztanleria herrian. Zer egin horri buelta emateko?

Bertakoak bertan gelditu, eta tamainan haunditu!

Nolakoak heldu dira aurtengo San Martinak?

Talo, hiruginar, txistor, gazta eta ilusioz betiak!

Besta egiteko toki bat?

Hernani askotan, baina Doneztebe eta Elizondo berexiak dira niretzat.

Zein afizio dituzu?

Mendira joatea arrunt gustoko dut, batez ere ontto garaian! Palaz jokatzea eta bertsoak ere bai!

Irakurri duzun azken liburua?

Kritika saria erabazi berri duen Etxegoienen *Autokarabana*.

Eta politena?


Toti Martinez De Lezearen *La Bretxa*.

Amets bat?

Nafarroan, euskara dagoen lekuan egotea.



Maitane LEGARRETA → Aranoko gaztea



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net



BIXEN ostatua
Bokadillo eta stako etxerak
948 450 383 - DONEZTEBE



Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arana Arizaga

Rel Agrovico

Pertsuak • Ongeriak • Haziak
Dilasko eta oilandak astero
ortzegunetan • Kaloiak

Murgas, 20 • 31740 DONEZTEBE
Tfnua/Faxa: 948 45 18 45 Mugkora: 818 25 85 95

Ongi pasa feriak!



Kimetz
Bolardenda

Dietetika eta nutrizioa - Kosmetika naturala - Oinetakoak
Dieta pertsonalizatua - Naturapatia - Apterapia
Masajak Jerriflexioak, kinezitasak, osteopatia, terapiak...
Bioenergetika - Bach Loreak - Medikuntza txanarra - ...

Elizate 10, 2. planta | 48940 | Tfn: 948 45 811 | karlos@kimetz.com



IRRENTZE

**OSTIRALETAN
MUS
TXAPELKETA**

Ongi pasa feriak!

Merkatarien kamika, 2
DONEZTEBE
948 451 826



P.J.M

Pedro J. Martin
Azienda tratularia

hurbildu azienda feria ikustera

948 450 042
Martineña etxea • DONEZTEBE



DONEZTEBEKO FERIAK | azaroaren 19an Goizean karriketan ibili eta aziendak ikusi ondotik, arratsaldean herri kirol jaialdia

Doneztebeko feriak Sanmartinak pasatu eta ondoko asteko ortziralean izaten dira urtero. Aurten azaroaren 19an izanen da egun hori. Goizean, Merkatuko Plaza inguruan aziendak ikusteko eta beharbada erosteko aukera ere izanen da, urtez urte hutsik egiten ez duten tratante familien lanari esker. Egia da generalean lehen baino azienda buru guttiago ikusten dela baina, nork daki, beharbada, pasa berri diren Elizondoko Ferietan bezala, Donezteben ere azienda buru eta jende ugari bilduko da. Dena den, egia da aurten Elizondon ahalegin berezia egin zutela Baztan eta Bertizaranako baserritarrak gonbidatuz euren abelburuak feriarera eramateko. Gainerakoan, aparkalekuan, nekazaritzako tresna berrien erakusketa izanen da, marka handiko saltzaileen eskutik. Eta Doneztebeko karriketan barneratuz gero, nola ez, xoko guztietan paratuko diren postuetan erosketak egiten ahalko dira: arropak, oinetakoak, sukaldeko tresnak eta bertze hainbat gauzaren artean, gasnak, ogia, eztia, baratxuriak, kontserbak eta gisako elikagaiak erosteko modua izanen da. Zubietako talogileek ere ez dute hutsik eginen.



FERIETAN
zure gosari eta bazkariak
ARIZTIGAIN kanpinean!!!



Kaxulak | Plater konbinatuak
Bokatak | Pintxoak
Menua | Karta

SUNBILLA • 948 450 540 • info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

Kulturkari
Bazkariak eta txapela

EGÜTEGIAK
BISITA TXARTELAK

ESKANTZAI!
100.....70€
200.....85€



948 635 458



Euskal Herriko II. mailako Aizkora Txapelketaren finala eta Euskal Herriko Kintopekoen Harrijasotze Txapelketa

Dagoeneko ohikoa da Doneztebeko ferietako bazkalondoko herri kirol saioa. Aurtan bi txapelketa ditu iragarriak Nafarroako Herri Kirol Federazioak ortziral arratsalde horretarako. Batetik, **Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketaren Finalean** arituko dira **Ander Erasun, Manuel Kañameres, Xabier Míndegia, Oihan Larretxea, Jesus Mari Lasa eta Ugaitz Mugertza**. Egin beharko duten lana: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztea izanen da.

Eta aizkolariak ez ezik, harrijasotzaileak ere ariko dira Doneztebeko frontonean. **Euskal Herriko Kintopekoen Harrijasotze Txapelketaren** harira, **Jagoba Otaegi, Aitor Oiarbide** eta **Jon Unanue** lehiatuko dira. Harrijasotzaile bakoitza hiruna minutuko txandatan ariko da 100 kiloko zilindro zaharrarekin eta 100 kiloko kubikoarekin. Jaialdi eder honetara sartu nahi duenak 10 euroko sarrera ordaindu beharko du.



arozena ostatua



gosariak eta bazkariak

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 - Doneztebe



ALBAITARITZA
ZENTRU
TEKNIKOA

ONGI
PASA
FERIAK

Rosa Seminario, 15 - DONEZTEBE - 948 450 591



Tel./Fax: 948 450 590
e-mail: goldeialerra@gmail.com
Pol. Industrial Aparten. 4
33000 Doneztebe (Nafarroa)

Amezti s/g.
DONEZTEBE
948 451 670

JUAN J. PIKABEA

Arropa konfekzioak
Senaragintzako trajeak
Gizonendako jostungintza
Egindako trajeetan aukera zabala
Galtzok 70 neurria bitarte
Atorak 56 neurria bitarte
Jertseak ere taila handiak
Zopotak



AMAIUR altzariak



T. 948 450 400
Rosa Seminario 13
DONEZTEBE



ORAIN
asteburutan ere irekia!

Amezti, 7
Tfnoa: 948 450 271
DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!



Tfnoak:
608 676 221
948 450 064
DONEZTEBE

Mendaur
Motor

OPEL SUZUKI

Salmenta eta konponketa
Txapa eta pintura





Leitzako errep. | DONEZTEBE | 948 450 333



DONEZTEBARRAK

Doneztebeko Merkataria eta Zerbitzuen Elkarte

«Urtearen buruan antolatzen ditugun aktibitateen bitartez gure esker ona agertu nahi diegu gure bezeroei»

Herritarren arreta bereganatzeko intentzioarekin hainbat ahalegin egiten dituzte urte osoan Doneztebeko saltzaileek. Maite Oskoz, elkarrearen presidentek azaldu digu horren arrazoiak: «urtearen buruan egiten ditugun aktibitateen bitartez Doneztebarrak elkarrearen esker ona agertu nahi diegu gure bezeroei»

Eta urte honek eman duenari errepaso tiki bat eginez, joan den urteko ildo beretik, aurten ere maiatzaren lehen asteburuan **pintxo lehiaketa** antolatu zuten (hirugarren edizioa). Irabazleak **Amezti Ostataua** (lehen saria) eta **Jubilatu Etxea** (bezeroen saria) izan ziren. Aipatzekoa da hiru egunez 2.500 pintxo inguru saldu izana.

2.500 euro banatuak erosketa-txarteletan

Jendea herriko dendetan kontsumitzera bultzatzeko estrategia interesgarria dela ikusita, oraingoz 2.500 euro banatu dituzte urte honetan bezeroen artean zozketatutako erosketa-txarteletan. Uztailen, konparaziora, elkarteko sozio diren dendetan erostekak egiten zituzten bezeroek bazuten kupoi batzuk betetzeko aukera eta, gero, abuztuaren 21ean, bezero horien artean **200 euroko 10 erosketa-txartelen zozketa** egin zen. Saridunak honako hauek izan ziren: **Lourdes Goñi** (Doneztebe), **Amaia Castro** (Doneztebe), **Eva Lertxundi** (Almandoz), **Arantxa Arregi** (Doneztebe), **Kontxi Saldias** (Beintza-Labaien), **Junkal Zubigarai** (Legasa), **Laura Andresena** (Legasa), **Izaskun Juanena** (Doneztebe) **M^a Jesus Elizondo** (Doneztebe) eta fideltasunaren saria **Junkal Zubigarai**rentzat (Legasa). Egun horretan, abuztuak 21, larunbata, 'Merkataria Karriketan' izenarekin **azoka eguna** zuten antolatua Doneztebarrak elkartekoek. Aurreko urteetan gisa honetako jarduerak udaberriaren eta udazkenean egin bazituzten ere, aurten, lehenengo aldiz, abuztuan egitea deliberatu zuten. Bero izugarria egin zuen egun horretan, (Doneztebeko Metereologia Estazioak 39,3º neurtu zituen, Nafarroako daturik altuena) eta espero zuten jendetzarik ez zen animatu karriketan ibiltzera. Bero izugarriarengatik izan ez balitz, arrakasta «erabatekoa» izanen zela iruditzen zaió Maite Oskoz.

Aurten urriko bigarren asteburua ohikoa baino luzeagoa zela aprobetxatuz eta turismo etxetara ere jende dezente etortzen dela baliatuz, **500 euroko erosketa txartelaren zozketa** egin zuen Doneztebarrak elkartek. Oraingo honetan **Edurne Mikeo** aurtiztarrak irabazi zuen saria. «Kontent gaude normalean gure bezero den pertsona bati egokitu zaiolako saria –erran digu Maite Oskozek–. Jakina, kanpoko bat egokitu balitz ere ongi izanen zen, azken batean eroslea delako, baina beti, bertakoak 'bereziki kuttunak' dira guretzat» gaineratu du.

Eguberri hauetarako gauza bereziren bat prestatu ote duten galdetuta, «oraindik sobera lotu gabe» dutela erantzun digu elkarteko arduradunak. «Ideia batzuk badira (tonbo-



III. Pintxo Lehiaketaren sari banaketan Doneztebeko ostatuak eta udaleko ordezkariak izan ziren, baita etxe laguntzaileak ere. Jorge Iribarren (Amezti) eta Marimar Mindegia (Jubilatu Etxea), Miguel San Miguel alkatearekin, Anapen elkarteko Fermin Fernandez eta Bodegas Inurrietako Felipe Lizardirekin.

la...) baina oraindik gauzak lotu gabe daude. Hurrengo asteotan emanen dugu ezagutzera».

46 bazkide

Doneztebarrak merkatarien elkarteak 46 bazkide biltzen ditu gaur egun eta zuzendaritza batzordean ere orain dela urte bateko pertsona berberak segitzen dute. «Hel-du den urteko ekainean berrituko da junta» adierazi digu **Maite Oskozek**.

Berriki egin dituzten kanpainen batez ere «Doneztebetik kanpo» bizi direnak animatu direla gehiago dio Maitek. «Pixka bat harrigarri egiten zaigu hori. Gure betiko bezeroak eskertzeko prestatzen ditugu kanpaina gehienak baina, gero, gehiago parte hartzen dute kanpotik etorritakoak bertakoak baino»

Krisiaren ondorioekin kezkatuak

Denda ttikiak nola defenditzen diren galdetuta, gaiaz ez dela «sobera hitzegiten» aitortu digu **Maite Oskozek**. Zernahi dela, «nabaritzen da, dudarik ez, eta kezka sortzen duen gaia» omen da. Arraiozen aurten ireki den supermerkatuarengatik zerbait nabaritu duten galdetuta, «ez gehiegi» erantzun digu. «Beldur haundia» zegoela aitortzen du baina, berak bederen, ez omen du «arrenkura handirik entzun». Gainerakoan, bezeroaren atentzioan trebatzeko ikastaroa egin dute aurten. «Ez zen jende aunitz animatu» dio Maitek, «beharbada, jendea krisiarengatik desmotibatua dagoelako».



Urriko bigarren asteburuan egin zuten kanpainaren baitan 500 euroko saria eman zuten Doneztebarrak elkarteak. Argazkian ageri dira Lorea Agirre (Kimetz belardenda) saria ematen eta Aurtizko Edurne Mikeo sariduna (eskuinean).



AVIA

DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA



Club Avia Txartelarekin %2ko deskontua gasoil eta gasolinan eta %5ko deskontua dendan

ESKAINZA ZABALAGOA (ogia, janariak...)
Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:

- Etxez-etxeko gasoil-zerbitzua
- Auto-garbitzaile automatikoa
- Presio bidezko garbiketa
- Autoaren barneko garbiketa

Leitza E., 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679 | F. 948 450 857

www.doneztebe.com

SANTESTEBAN

TAILERRAK




- Txapa, Mekanika eta elektrizitatea
- Kotxe berriak eta bigarren eskukoak
- Kotxe ia berrietan eskaintza zabala (6-12 hilabeteko kotxeak): Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace
- ISO 9001 eta ISO 14001 duen tailerra

Leitzako errep. 80 | DONEZTEBE | T 948 450 282

KONTXA

Gasolindegia



✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean
etxera eramanez dugu



Ongi pasa ferriak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE

EDERKI
PEUGEOT AGENTE OFIZIALA



PEUGEOT

Grua Zerbitzua 24 ordutan
Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Pintura
Hidraulikan espezializatuak

Leitza errep. • DONEZTEBE • 948 450 525



LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA

Feria egunean 1.000 euroko balioa duen erosketa txartela zozketatuko dute dendariak

Aurten lehen aldiz Lesakako ferietako ortzegunean, arratsaldeko 7etan, **1.000 euroko balioa duen saria zozketatuko du Zerbitzuen Elkarteak** euren bazkide diren dendetan erosle izan direnen artean. Hortarako, feria aitzineko aste hauetan boletoa banatuko dituzte bezeroen artean eta zozketan saridun suertatzen denak, nahitaez **azaroaren 27an gastatu beharko** ditu



Zerbitzuen Elkarteak zuzendaritza batzordea osatzen duten 5 kideetatik 4 ageri dira argazkian. Ezkerretik eskuinera Barbaro Solo (Panpina), Olga Altzate (Farmazia), Mertxe Antzizar (Txinelka) eta Eider Rodriguez (Oninart). Batzordeko 5. kidea Pilar Jauregi da, Legarrakoa.

1.000 euroak. Egun horretan, irabazleak aukeratuko du zein 5 dendetan eginen dituen erosketak, beti ere kontuan hartuz horietako bakoitzean 200 euroko topea izanen duela erosteko. Gisa hortara, 1.000 euroko gastua pilatuko du osotara. Aurten lehengo antolatutako kanpaina honekin «erosleak saritu bidenabar, erosketa-giroa ere animatu» nahi dutela dio **Eider Rodriguezek**, elkarteak diruzainak. Eta gisa honetako kanpainak erosleengan sortzen duten efektua nabaritu ere nabaritzen dela argi ikusten dute elkarteak bazkideek. «Zozketak eta sariek sortzen duten irrikarekin, jendea gehiago animatzen da erosketak egitera» adierazi digu Eiderrek.

Ikastaroak

Bezeroak animatu eta eurenganatzeko estrategiez gain, elkarteak bazkide direnentzat ikastaroak ere antolatzen dituzte urtero. Aurten bi ikastaro egin dituzte: batetik **erakuslehoak nola antolatu** ikasteko eta, bertetik, **ordenagailuekin trebatzen hasteko ikastaroa**. Heldu den urtean, «informatikan gehiago dakitenentzako ikastaroa antolatzea» ere pentsatua omen dutela dio Eiderrek. Normalean 2 asteko ikastaroak izaten dira, eguerditan emanak eta, guttienez, 12 lagun inguru bildu behar izaten dira antolatzeko. «Ez da erreza izaten jendea animatzea, denbora ere ateri behar izaten baita». Hala ere, bere alde dute ikastaro hauek subentzionatuak izaten direla Nafarroako Gobernuaren aldetik. Urte hasieran zerrenda bidaltzen dute aukeran dauden ikastaroekin eta, hori jakinda, jendea apuntatzen da. Nahikoa kopuru egiten baldin bada, ikastaroa eginen da, bertzenaz ez.

Eguberrietako kanpaina

Sari bakarra eman beharrean (iaz Karibera bidaiak bat zozketatu zuten), aurten denda bakoitzak sari bat emanen du berean erosle izan direnen artean: **erosketak egiteko orga edo karro tiki bat**, denetan berdina, eta elkarteak logoa eramanen duena. Hortarako, erosketak egiterakoan boletoa banatuko dira eta, gero, eguberrietan edo errege eguna pasatuta, oraindik erabaki gabe dagoen egun batean, zozketak egiten dira. Gisa honetara, iazko moduan sari bat eman beharrean 29 sari emanen dira aurten, bazkide diren dendak haina sari.

29 bazkide

Azken urte honetan 4 bazkidek baja eman dutela dio Eiderrek. «Urte hasieran egiten dugu bazkide egiteko kanpaina eta heldu den urte hasieran berriz egiten dugu». Urtean 2 kuota ordaintzen dute, bat martxoan eta bertzea irailean. Garesti izaten den galdetuta, ezetz dio Eiderrek, ordaintzen ahal direla. Zuzendaritza Batzorde berriari Olga Altzate (Farmazia) da presidentea, diruzainak eta idazkaria Eider Rodriguez (Oninart), eta bokalak Mertxe Antzizar (Txinelka), Barbaro Solo (Panpina) eta Pilar Jauregi (Legarra).

TALLERES FRAIN
LESACA - Tel.: 948 637 525
ONGI PASA FERIAK!

TRANSXAKAIN
TRANSXAKAIN LI
JESUS ARAMBURU ALZUGARRI
Ongi pasa feriak!!
T. 669 840 198 / 948 638 052 | F. 948 627 578
Otsango ind. 28 • LESAKA | tranxakain@yahoo.es

Dia %
LESACA
Lesakako ferietan otordu goxoak prestatzeko
Dia % Plaza Berria, 10 - 948 637 335

Otxango
948 638 126
Otsango ind., 22
LESACA

- Ferietako menua
- Pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak egun osoan
- Etxean egindako pizza eta hamburgesak

intzuri
OPTIKA
Naiara Albarro Retegi
Optiko-Optometrista

ikusmenaren azterketa,
begi tentsioaren neurketa,
lentilen egokitzak,
lanerako babes
bataurrekoak...

| Bittiria 36 | LESAKA |
| t: 948.627550 |

PASTELERIA **HAIZEA** BOLLERIA
CAFETERIA

Tel: 948 638 036
Plaza Zaharra, 7
31170 LESAKA




IÑAKI
janaridenda

Arrebxea, 12
948 638 287



ONGI PASA FERIEK! 

bortz zudu
ZOPRENIA - HOPISIESEN

948 631 521
material gutxieta inguruetan dugu
kamisaketak / aparitako artikuluek

ongi pasa feriak!

 **IZARRA**
OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12-13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

ITURBENA
ONGI PASA FERIAK

kafetegia
Antololu 25 - LESAKA




LESAKAKO FERIAK

Azaroaren 25ean Bortz Herrietako aziendak sarituko dira

Lesakako feriak ospatuko dira azaroaren 24 eta 25ean eta ortzeguneko egun handian, Bortziritako aziendarik onenak sarituko dituzte.

Asteazkenean, Merkatu Eguna izanen da. Azkeneko urteetan bezala, Irain eskolako jantokian Azoka Ttikia izan dute 11:00etatik 13:00etara. 18:00etan trikitalariek kalejira egingen dute eta ordu berean, **Beti Gaztek** antolatutako **ajorriero lehiaketari** hasiera emanen zaio frontoian edo, joan den urtean bezala, eguraldiak launguko balu, Beheko Plaza inguruan. Bikote bakoitzak 2 kilo bakailao ekarri beharko ditu. Elkarrekin 40 euro emanen dizkio bikote bakoitzari. Bikote bakoitzak gas-sukaldea, kazula, zartagina eta behar dituen tresnak eraman beharko ditu. Antolakuntzak olio, baratxuriak eta gatza jarriko ditu bikote bakoitzarendako. Sariak sailkatutako lehendabiziko 3 bikoteei emanen zaizkie. Bukatzeko, proba ikustera hurbildu den jendeak, lehiaketan parte hartu dutenek egindakoa dastatu ahal izanen dute. Lagungarri, ardoa eta ogia banatuko da.

Ortzeguna egun handia

Baina dudarik gabe, ortzeguneko feria eguna izanen da egun handia. Goiz osorako **artisans erakusketa** antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak Beheko Plazan. **Azienda lehiaketan** iazko sari beretsuak mantenduko dira. Behi-azientei dagokienez, hiru kategoriatan banatuko dira, holandesak, suizak eta haragitakoak eta bakoitzean hiru sari banatuko dira eta hobekien aurkeztutakoak ere txapela jasoko du. Zaldi azientzat eta ahariantzat ere hiru sari izanen dira, kopuru ttikiagokoak. Plazan aziendak ikusgai dauden bitartean, 11:00etan **aizkolariak** ariko dira (Donato Larretxea, ...) eta ondotik Sebastian Lizaso eta Jexux Mari Irazu **bertsolariak**, Bortziritako bertso eskolak antolatutako saioan.

Plaza inguruan eta Bittiria karrikan hainbete saltzaile ere izanen dira, beraien produktuak salgai dituztela.

Bazkalondoan, arratsaldeko **17:30ean pilota partidak** jokatuko dira eta 19:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean, Lesakan aurtengo udazkeneko feriak akautzeko.





Feria egunean, artisaue erakusketa izanen da aurten ere Beheko Plazan.



Eguerdi aldera, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizasok bertso saioa eskainiko dute.



Azienda lehiaketaren sari banaketa 13:00etan izanen da eta behi, zaldi eta ahariarik hobereak sarituko dira.



TALLERES BioB BAT Juan Larregui
MOTOZERRETAN eskaintza zabala
Santiago, 10 • ELIZONDO
Husqvarna Kränzler T. 948 580 898

Antoiu karrika 948 637 949 LESAKA
ongi pasa feriak!
Ibaiondo janaridenda

Beheko plaza 10 - 31770 Lesaka
T. 948 627 514
Egun osoa irekia
Baserritar jantzien kolekzio berria allegatu da.
Eskaintza handia

kattagorria lantzeria mertzeria

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

feria alai eta pozgarriak izan ditzazuela

Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA

BORTZIRIAK

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

Euskara Mankomunitatearen 20. urteurrenak jendetza bildu du Beran

750 lagunek osatu dute erakundearen logotipoa

TTIPI-TTAPA | BORTZIRIAK

Aurreikuspen guztiak gaindituta joan da Bortzrietako Euskara Mankomunitatearen 20. urteurreneko ekitaldia. Bortz herrietako euskara batzordeek antolatuta urriaren 31n egin zen Beran.

Lehen erronka, Matzada futbol-zelaian 400 lagun biltzea eta mankomunitatearen irudia jendez osatzea zen, airetik hainbat argazkilarirekin irudia biltzeko. Erronka hori bete ez ezik, kasik bikoiztu ere egin zen, 750 lagun bildu baitziren Berako futbol zelaian. Honela, logoa osatu ez ezik, jendez osatutako marko eder bat ere egiteko adina lagun bildu zen, Berako dantzariak *Zaindu maite duzun hori* zioen pankarta eskuetan zuten bitartean –argazki-an–. Parapentetik, tramankuku hegalaria bateatik eta garabian igotako argazkilariek argazkiak egin zituzten. Gero, kalejiran joan zen jendea Altzateko plazaraino.

Plazan jaialdi ederra izan zen, Joseba Olagarai eta Iazki Serranoren gidaritzapean. Lesaka



eta Berako Musika Bandek elkarrekin, euskal kantuen popurri ederra egin zuten; bi herrietako abesbatzak ere elkarrekin kantatu zuten; Beñardo Goietxe eta Joseba Irazokik ere elkarrekin kantatu zuten; Lesakako bertso eskolako neskatxek ere, Pirritx eta Porrotxen kantu bat abestu zuten taula gainetik, koreografia eta guzi.

«EUSKARA DA GU EGITEN GAITUENA»

Pello Apezetxea Euskara Mankomunitateko sortzaileetako batek 20 urteotako lana goraiatu eta etorkizunerako erronkak aipatu zituen: «Gu Bortzrietako euskal-

tzaleak gara, eta euskararen alde gure esku dagoena bertzerik ezin dugu egin, baina euskararen alde gure esku dagoen guztia egiteko prest gaude eta eginen dugu. (...) Euskara gure hizkuntza da, gu egiten gaituena, baina hiztunik gabe ez da hizkuntzarik. Euskarak galdu ditu azkarki eta galdu adina eta gehiago ditu irabazteko. Mankomunitateak euskarak bere bidea egin dezan gure eskualdeak daukan tresna da, tresnetako bat. Gure esku zegoen sortzea eta sortu genuen. Aurten ditu 20 urte, 20 urteko lana eginna da, baina ez da dena eginna, badatoz lan be-

riak, erronkak, asmoak, nahiak... hornitu dezagun tresna, babestu mankomunitatea, berreskuratu sintonia, bilatu adostasunak, indartu elkarlana. Horrela bakarrik izanen dira hurrengo 20 urteak emankor. 20 urte, ospatu dezagun, atera gaitezen plazara Bortzrietan euskarak dituen aldekotasunak agertzera, baikortasunez, gure konpromisoa erakutsiz, gure indarra eta gogoia batuz. Gu gu gara, eta bakarrik gure eskura dagoena egin dezakegu, baina gure esku dagoen guztia egin beharrean gaude nahitaez. Euskara gure buru eta ahoetan biziko da»

Herri bakoitzeko euskara batzordekideek ere hartu zuten hitza: Juanita Larralde (Arantza), Jaione Sein (Igantzi), Axun Maia (Etxalar), Zaine Rekondo (Lesaka) eta Bittori Telletxeak (Bera). Bukatzeko, Elgorriaga ahizpek trikitixa eta panderetarekin, Egoitz Telletxeak perkusioan eta musika bandek Oskorriren *Adin bero* kantuaren bertsioa egin zuten. Gero, bazkari jendetsua izan zen Altzateko frontoian eta 300 lagun baino gehiagok giro ederra paratu zuten. Arratsaldean haurren jokuok eta musika izan ziren, Mankomunitatearen besta ederra borobiltzeko.



GIZARTEA → HELENA TABERNAREN 'NAGORE' IKUSGAI

Nagore Laffageren hilketaren inguruan egin den filma eskainiko da azaroaren 20an

Estreinatu eta guttira Kultur Etxean eskainiko da

Realzaleen irteera

Denboraldiko lehen ateraldia Bartzelonara eginen du Genaro Taldeak. Abenduaren 11-12an Real eta Bartzelonaren arteko futbol partida ikustera joanen dira eta horretarako Xuga ostatuan eman behar da izena azaroaren 16a baino lehen, 30 euroko fidantza utzita. Genaro Taldeko bazkideek 120 euro eta bazkide ez direnek 150 euro ordaindu beharko dute. Prezioaren barne autobusa, gaua Bartzelonan eta partidako sarrera sartuko dira.

Larun Ttikiren ateraldiak

Mendi irteera gehiago aurreikusi ditu Larun Ttiki Mendi Taldeak heldu diren igandetarako. Azaroaren 14an, Landagaitara joanen dira 09:30ean lamoteneatik abiatuta. Azaroaren 21ean lamoteneatik 09:00etan abiatuta, Alkaiaga-Baldrun-Nabaz-Otsango eginen dute. Hilaren 28an, lamoteneatik Ameltziagaraino autoz joan (09:30) eta Gondendiagara joanen dira.

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izanen da eta horren harira, Bortzietako Kontziliazio Itunetik hausnarketarako ekimena antolatu dute. Azaroaren 20an, film berezia eskainiko da Kultur Etxean, 20:00etan. Helena Taberna zine-zuzendari nafarrak egindako *Nagore* dokumentala eskainiko da. 2008an Iruñeko Sanferminetan Nagore Lafaggerekin gertatu zenari buruzkoa da.

Dokumentalak arrakasta handia izan du Valladolideko Zinemaldian, eta hilaren 12an estreinatzekoa da zinemetan. Aste bat berandua go, Beran ikusteko aukera izanen da.

Haur Txokoa edo ludoteka zerbitzua ere eskainiko da, baina horretarako izena eman beharko da (948 635036).



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ekuntza lagun XXIV. Lurraren Egunean

Jendetza bildu zen urriaren 24an, Gure Txokoa elkarteak hogeita laugarren urtez antolatutako Lurraren Egunean. Euriaren beldur, 80 eskulangileak eta 27 barazki eta fruitu ekoizleen lanak aterpean paratu zituzten, Altzateko frontoian eta Toki-Ona kiroldegian. Lurraren Egunean barne jokatu zen **XXIV. Gasna Lehiaketa** ere, eta aurkeztutako 12 gasnen artean, Igantziko Txori-Tokiko Maria Justa Seinek irabazi zuen lehen saria. Bigarrena Alkeberoko Isabel Bazterrikak eraman zuen eta hirugarrena, Arantzako Serorenbordako Margari Madariagak. **XIII. Sagardo Lehiaketari** dagokionez, laugarren urtez Lesakako Buenos Aires etxeko Jose Mari Elgorriagak irabazi zuen, 17 sagardoren artean. Bigarren saria Alkaiagako Soruara joan zen. Bezperan, **IV. Barazkiopil Lehiaketa** jokatu zen. Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ziren, 13 guzira, eta Jabier Irastortza *Otsua* eta Arantxa Agirrerena izan zen onena. Bigarren saria Antton Rodriguez *Tarranto* eta Xanti Maiarentzat izan zen. Lurraren Egunean, bertalalde, Rosa Errandoneak Berako futbolari buruz prestatutako **argazki erakusketak** jendearen arreta piztu zuen.



ARGAZKIA: GURE TXOKOA ELKARTEA

Berriz ere Patxi Vila nagusi Larungo Mendi Bizikleta Igoeran

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, aurten bigarren bez, Larungo Mendi Bizikleta Igoera egin zen azaroaren 1ean. Joan den urtean bezala, 8,9 kilometroko ibilbidea egin zuten 26 txirrindularik eta banaz berteko malda %9,5ekoa izan zuten eta gehienekoa %29koa. Aurtengoan, malda pikoaz gain, eguraldi kaxkarrak ere areriko izan zuten. Iaz bezala, Patxi Vila izan zen bizkorrena. Ez zuen iaz egindako marka (41:15) hobetzerik izan, eta 44:32ko denbora egin zuen. Bigarren postua Asier Latxetarentzat izan zen (45:02) eta Iñaki Landabeak osatu zuen podiuma (46:20). Laugarren Eneko Gurrutxaga gelditu zen (47:05) eta bosgarren Kandi Ferbenza Ugalde (47:05). Bortz horientzat sariak izan ziren: 200, 100, 75, 50 eta 25 euro, hurrenez hurren. Denan den, iaz bezala, Vilak bere diru saria Gure Txokoa Txirrindula Eskolari eman dio.

BERAn
JANARIDENDA
eskualdatzen da
610 61 31 57

BAR
Botxo
OSTATU
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

UDALA → PNVKO TALDE PARLAMENTARIOAK AURREKONTU OROKORREI EGINDAKO EMENDAKINETAN AGERI DA DIRU-SAILA

Kultur Etxea egokitzeko 3,6 milioi euroko laguntza emanen du Espainiako Gobernuak

2011ko udal aurrekontuan sartuko da berriz proiektua eta 2012rako egina egotea espero du alkateak

Aitor AROTZENA | LESAKA

Karmeliten komentua moldatu eta Kultur Etxea egokitzeko 3,6 milioi euroko diru-saila bideratuko du Espainiako Gobernuak, Kongresuko PNVko talde parlamentarioak aurrekontu orokorreari egindako emendakina onartu ondotik. Hain zuzen, egoera ekonomikoaren ondorioz, Herriko Etxean proiektua kasik baztertua zegoenean (aurten go udal aurrekontuan ez zen sartua) ailegatuko da diru hori, 5.933.850 euroko aurrekontu osoaren %60a estaliko duena.

Juan Fermin Mitxelena alkatea kontent agertu da ustegabeko dirutza horrekin eta «proiektua 2011ko udal aurrekontuetan sartuko dugu berriz ere» aipatu du. Lanaren zati bat, teila-tuaren moldaketa, egin dagoela ere adierazi du alkateak «eta ora in harremanean jarriko

gara Nafarroako Gobernuarekin, ea 2007rako eskaini zigun milioi bat euro hurbileko dirulaguntza mantentzen duen. Horrekin, kasik %100 Kultur Etxea eginen genuke, eta hori behar dugu, dagoeneko nahiko diru gastatua baitugu proiektuan».

Egitasmoaren arabera, komentuan erakusketak gela eta eszenatokia eginen lirateke eta ondoko nabe berri batean liburutegia eginen litzateke. «UPN ingururik kezu dira –aipatu du Mitxelena– baina hamar urte daramazkigu Nafarroako Gobernuari laguntza eskatzen eta ez dute eman. Orain, bertze bide batetik lortu dugu, Madrilgo Gobernuarekin egindako negoziazioen bidez».

Lan egoera nola dagoen ikusita, 2011n bertan proiektua adjudikatu eta 2012rako Kultur Etxea egin ikusi nahi luke Mitxelena: «Herriarentzat ilusionantea dela iruditzen zait».

Torturaren kontrako mobilizazioak

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloketan parte hartu zuten 15 guardia zibilen kontrako epaiketaren harira herrian egindako mobi-



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

600 mendizale bildu ziren Nafarroako Mendi Taldeen Egunean

Urriaren 24an herrian ospatu zen Nafarroako Mendi Taldeen zortzigarren Eguna 600 bat mendizale bildu zituen. Horietatik erditsuak, Beti Gazte elkarteak prestatutako 16 kilometroko mendi itzulia egin zuten eta bertzeak, Nafarroako Kirol Jolasen barrenean egindako ateraldian parte hartu zuten gaztetxoak izan ziren, 35 monitorerekin batera. Euriaren beldur zira eta euritakoekin jantzita abiatu ziren mendizaleak, baina goizean eguraldi txukuna izan zuten ibiltzeko. Gero, frontoian bazkaria izan zuten, eta egunari bukaera borobila emateko Mordesto akordeolariarekin dantzaldia izan zuten.

lizazioek jende aunitz mugiarazi zuten. Urriaren 25ean elkarretartze jendetsua egin zen plazan, biharamonean LABek ere kontzentrazioa egin zuten eta 28ko ordubeteko paro deial-

diak segida zabala izan zuten komertzio arloan. Donostian ere herritar aunitzek parte hartu zuten egun horretako kontzentrazioan eta urriaren 30eko manifestazio jendetsuan.

Buruko gaixoen artea solasgai

Buruko gaixotasuna dutenen arte eta kultur adierazpenak hizpide hartuta solasaldia eskainiko du Egoitz Teletxeak larunbatean, azaroaren 13an, 19:00-etatik aitzinera Beti Gazte elkartearen egoitzan. Beti Gazte eta Dizdira elkarteak antolatuta dute hitzaldi interesgarria, udalaren laguntzarekin.



OIHANA → ZIMITZUTIK BERTIZKO MUGARAINO

‘Mendi babestua’ proiektua martxan

Udalak Bertizko parkearen eredu segituko du proiektua aitzinera eramateko

bolak mozten ahal dira, baina mendiko planak segituz, mendian ibili ahal izanen da baina, adibidez, ez pista berririk ireki, baizik eta lehengo pista zaharrak berritu eta berreskuratu.

Plan honen helburua bertako landare eta animaliak babestea izanen da. Asmo hau Udalean aurkeztua dago eta azaroan bilera irekia egingen da herritar guztiei honen berri gehiago emateko.

Euskara klaseak

Bortzirietako Euskaltegiak antolatuta euskara ikasteko aukera izanen da ikasturte osoan Iharrian. Klase hauek euskaraz batere ez dakitenentzat zuzenduta daude. Astelehen eta asteartetan 09:30etik 11:30era izaten dira. 270 euro ordaindu behar dira ikasturte osorako. Mentxu Peña, Euskaltegiko arduradunak

Irune eta Itsaso

Bertizko parkearen ereduari segituz, Udalak mendia babesteko proiektu bat aurkeztu du. Proiektu honek hartuko lukeen eremua Zimitzutik hasi, Bago-leko Borda pasatu, Azkuraino ailegatu eta hortik Bertizko mugaraino izanen litzateke.

Bertizko parkean gestio plan bat dago eta hori hartu da oinarri proiektu hau martxan jartzerakoan. Plan horren arabera, adibidez, eremu horretan ehiza egiten ahal dela adierazten da, baina ehiza plana segituz; edo ar-



ARGAZKIA: AXUN MAIA

Etxalartarrak Euskara Mankomunitatearen 20. urteurrenean

Urriaren 31n ospatu zen Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen 20. urteurrena Beran. Etxalartik dantzariak, trikitilariak eta bertze hainbat jende joan zen. Denetara 50 herritar baino gehiagok bertako ekitaldietan parte hartu zuten.

erran duenez, aukera polita da, herrian bertan beharrezkoa den hizkuntza ikasteko.

Urriko hilabetea usategietan

Hasiera ona eman diote sasoiari usazaleek. Urriaren 20 dozena

txoloma eta 42 dozena uso harrapatu dituzte sareetan. Ea azaroan eguraldiak laguntzen diren kopuru hau aunitzigo eta orain arteko markak hausteko.

Su egur loteak

Urtero bezala, urteren ere su egurra eskatzeko aukera izanen da hilabete honen bukaera arte. Berrikuntza bezala, lehengo urtetik aparte, su egurra lortzeko bertze modu berri bat izanen da. Nahi duenak beti bezala lordezake, hau da, udal txean eskatu, dagokiona ordaindu eta mendi-

an markatzen dena norberak bota eta etxera eraman. Modu berria, berriz, hau izanen da: tonako 40 euro ordaindu eta udaletxeak markatu, bota eta bide bazterrean prest utziko luke jabeak etxera eramateko.

Kultur Egunen akabera

Urriaren 29an, Behatokiaren eskutik, hizkuntza eskubideen inguruko hitzaldia eman zuen Garbiñe Petriati bertako arduradunak. Ekitaldi honek eman zion akabera aurtengo Kultur Egun arrakastatsuei.

DATUA

62

DOZENA
txoloma eta uso harrapatu dituzte urrian sareetan.

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
Audi
MARKA GUZTIEK KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BIDASOA
TULAKAK - PIRITANAK
KOTEXEAK - AUTOMATIZATZAK
MOBILITATEK - KONPONKETA
T./F. 943 61 50 60
Auzolario Lopez de Euzarri 5
BILIN - BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
Agardotegia Jatetxea
Alasta karrrika
BERA NAHARROA
Tel: 943 625 472

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ARANTZA

UDALA → AZPIEGITURAK

Zenbait auzotako pistetan mantenimenduan lanak eginen dira

Sasoi enpresak eginen ditu lanak

Nerea ALTZURI

Atal honetan lehen-dik aipatua bada ere, informazio zehatzagoa Udalak etxeetara bidaltzen duen orri informatiboan agertu du. Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Azpiegituren Departamentutik jasotako dirulaguntza zenbait auzotako pistak moldatzeko aurrekontu osoaren %60 da, eta gainerako %40 Udalak hartuko du bere gain. Hauek dira hobekuntza lanak eginen diren tarteak eta aurrekontuak:

AZKILARREAN

Arbikoerreka aldean urbidea paratu eta garbiketa lanak eginen dira (1.781,47 euro). Arruneko Bordako kurban, hodi berria sartu eta eskoi-

lera ttiki bat eginen da (3.088 euro) eta Beras-kunerako bidean urbide batzuk eginen dira (4.858,80 euro).

EGUZKIALDEAN

Zerradoko kurban tubo berria sartu eta hormigoia bota (4.400,56 euro) eta Aranibar alderdian tubo berria sartuko da (999,84 euro).

BERTZE LANAK

Bertze lan batzuk ere diruz lagunduak izanen dira, baina partikularrek bere gain hartu beharko dute subentziotik kanpo gelditzen den zatia. Hori da, adibidez, Egusutako pistako zati batzuetan zabor-legarra botatzearen kasua (806,76 euro) edo Meakatik Andresnekobordara doan bidean errepasso lanak egin eta tubo batzuk sartzearena (15.338,59 euro). Azken hau zehaztu gabe dago oraindik, auzotarrek inon ere lanak eginen diren tarteak eta aurrekontuak:



ARGAZKIAK: NEREA ETA AITOR

Hamabortzagarrena ederra!

Aurtengoa ere joan da eta balorazio positiboa egin du Ekaitza Elkarteak. 15. aldiz Baserritarren Eguna egin zen Santu Guzien Egunean. Eguraldi kaxkarrak ateraldi batzuk izan zituen eta herriko nahiz inguruko jende aunitz hurbildu zen urteroko merkatuara. Guzira 25 postu jarri ziren frontoian: eskulan eta baratze-ko produktu aunitz eta ederrak, gozokia, zerriak, frutak, opilak, tresnak, azien-dak... Berrikuntza gisa, aurtengoa, Beratik Etxegaraitarren pottokekin ume-txoek paseoak eman zituzten. Ahari Lehiaketarik ez zen egin, baina bertze aldi batez Gazta Lehiaketa egin zen. 13 gazta aurkeztu ziren eta Serorenbordako Margari Madariagak eraman zuen lehendabiziko saria; bigarren saria Albiz baserriak eta hirugarren tokian Aientsako Osildekobordako Mari Jose Lizardiren gazta gelditu zen. Aipatzekoa da, gainera, bertako produktuez osatutako zare haundia azken honek, Mari Josek, eraman zuela.

raien interesen arabera erabakiko da egin ala ez. Interesa duenak Herriko Etxera jo beharko du.

Lanak Sasoi enpresak eginen ditu. Esleipena %30 inguruko deszertuarekin egin da eta lanen erdiak azaroaren erdialderako zertifikatua egin beharko du.

Ehiztariak eskatuta, Ekaitzako pistan hormigonatze lanak egin dira. Hiru erreka zokotan tuboak moldatu dira eta Primitibon txabolatik goiti pista zati batzuk ere hormigonatu dira. Ubiria enpresak 30.705 eurotan egin ditu. Kopuru horretatik %65 Nafarroako

Gobernuko dirulaguntzatik ordainduko da eta gainerakoa Ehizari Elkartearen gain joanen da. Udalak, bere aldetik, tubo bat moldatzeko gas-tua eta erortza batzuen garbitze lanak bere gain hartu ditu. Obraren zuzendaritza lana Basar-tea enpresak egin du.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

Tel:
948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA - JATETXEA

elika e
Dietetika eta elikadura

- Ahazkuntza dietetiko eta nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Gaituraz kontrolatutako dietak
- Elikadura teknika
- Dietariaren aholkularitza
- Espetxuetan egindako arazoak
- Trasturazko erretzio eta entzikulazio dietetikoak

Iker Andueza Larra
Itza, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

GIZARTEA → HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA

Nafarroako etxeko konpost onenaren sariketan bi bortziritar

Nafarroako 77 familiak parte hartu dute lehiaketan

TTIPI-TTAPA | BORTZIRIAK

Étxean konposta egiten duten herritarrak sarituak izan dira aurten. Nafarroako Hondakinak tratatzeko Partzuergoak eta Iruñerriko Mankomunitateak Nafarroako etxeko konpost onenarendako lehen sariketa paratu zuten martxan maiatzean, eta Nafarroako 77 familiak eman zuten lehiaketan izena. Horieta tik zazpi Bortzirietakoak izan ziren. Apuntatu ziren 77tik 13 ailegatu ziren finalera, eta tartean lesakar eta beratar bana. Berako Luis M^a Endara eta Arantxa Ubiria eta Lesakako Almudena



Ezkerrean Almudena Arzuaga eta eskuinean Arantxa Ubiria.

ARGAZKIAK: TXOMIN ELGORRIAGA

Arzuaga izan dira Bortzirietako finalistak, eta saririk lortu ez badute ere, finalera ailegatzeagatik *Cómo hacer un buen compost - Konpost ona nola egin* - liburua jasoko dute.

Urriaren 21ean Iruñean egin zen sari banake-

ta eta 600, 300 eta 150 euroko sariak eskuratu zituzten lehen hiruek.

Errauste plana Nafarroan

Nafarroan errauste planta egin nahi du Gobernua eta horretara-

ko, hondakin kudeaketa plan bat atera nahi du aitzinera. Errausketaren metodoa arazoa konpontzeko izan litekeela dio Gobernuak, baina hainbat alderdi eta talde kontra agertu dira. Urriaren 29an, adibidez, ezker abertzaleak age-

GIZARTEA

Aipamen berezia Bestabusa-
rentzat

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 18an Iruñean egiten den Tokiko Agenda 21 Ebaluatze-ko Agintarien 10. foroaren eta Tokiko Garapen Jasangarrirako Praktika Egokien 6. Sariketaren barne, Bortzirietako Bestabusa ekimenak Aipamen Berezia jasoko du. Landa Garapen eta Ingurumen Sailak ekitaldi-aretoan izanen da sari banaketa eta Bortzirietatik Patxi Irisarri Etxalarko alkateak parte hartuko du.

rraldia egin zuen Iruñean, tartean, Xabier Zabalo eta Patxiku Irisarri, Leitza eta Etxalarko alkateek. Aipatu plan hori gelditzea eta irtenbide egokiena bilatzeko eztabaida parte-hartzailea egiteko eskatu zuten.

ZURE ETXEAREN PROIEKTUA 3.000 €^{tan}

Diseinu eta zerbitzu paregabek zure poltsikora egokitua.
Hurbildu gure bulegora eta aukera ezberdinek erakutsiko dizkizugu.

www.zure-etxea.com



T.: 948 625 403 San Esteban 8, BERA

DONEZTEBE

TURISMOA → EUROVELO PROIEKTUA

Motorizatu gabeko ibilbide batek Doneztebe eta Lapurdi lotuko ditu 2013an

Zortzi milioi euroko gastua izanen du proiektuak

TTIPI-TTAPA

Hiru urteren buruan, motorizatu gabeko zirkulaziorako ibilbide batek lotuko ditu Doneztebe eta Lapurdiko Getaria herria. Circuldouce izeneko proiektuaren barne eginen da, eta aldi berean, Baiona-Iruñea ibilbidearen zati bat izanen da. Mugaz gaindiko ibilbide hau Eurovelo europar ibilbide baten barnean dago; ibilbide horrek 8.200 kilometrotan, Noruegako Ipar Lurmuturra eta Sagres (Portugal hegoaldean) lotzen ditu.

Egitasmoaren berri urriaren 26an eman zuten Irungo Herriko Etxean egindako agerraldian. Hondarribia, Irun, Hendaia, Donibane Lohizune eta Getariako udal ordezkariekin batera, Jean-Jacques Lassarre Atlantiar Pirinioetako Kontseilu Nagusiko presidenteordea, Martin Garde Bertizko Partzuergoko presidentea eta Nafarroako Gobernuordekari bat izan ziren agerraldian.

Circuldouce proiektuarekin lehendik hain-

bat erakundek egindako lana bildu egin nahi izan dute. Izan ere, Hendaia, Irun eta Hondarribiko udalek Txingudiko badiako ibilbidea egokitu zuten oinezko eta bizikletendako; Atlantiar Pirinioetako Kontseiluak Baiona eta Hendaia arteko txirindularitza ibilbidearen bideragarritasun azterketa egin zuen eta Bertizko Partzuergoak ere hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernuarekin, Bidasoko trenbidearen Enderlatsa eta Doneztebe arteko zatia 2012rako egokitzeko.

Egitasmo honen azken helburua senide-tuak dauden Baiona eta Iruñea motorizatu gabeko ibilbide batekin lotzea da. Lehenbiziko zatia, Doneztebe-Getari, 2013ko lehenbiziko hiru hilabete korako eginen omen da. 60 kilometro ditu proiektuak, dagoeneko prestatua dauden 50 kilometroko bide berdea edo txirinda-bidea barnean sartzen dira, eta gainerakoa trafiko guttiko errepidean barrena edo orduko 30 kilometroko murrizketa duten zonaldeetan barna joan da.

Proiektuak zortzi milioi euroko gastua izanen du (BEZ gabe) eta horren %65, 5,2 milioi euro, Europatik bideratuko dira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

15 lagun dependentzia dutenei arreta eskaintzeko tailerlean

Baztan-Bidasoaldean dependentzia duten pertsonen arreta eskaintzen lan egin nahi duten 14 emakumeri eta gizaseme bati formakuntza ematen ari diren 3. Enplegu Tailerraren aurkezpena egin zen urriaren 29an liburutegian. Cederna-Garalurrek kudeatzen du eta UPN-Inafre erakundearen laguntza izaten du, baita Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zerbitzuaren, Europar Gizarte Funtsaren eta Doneztebe, Bera, Lesaka, Etxalar eta Baztango udalen dirulaguntza ere. Aurkezpen ekitaldian Lesaka, Doneztebe, Baztan eta Berako udal ordezkariak, Cederna-Garalurrek kudeatzen duen Luis Garate presidentea, Esther Celaya zuzendaria eta praktikak egiten diren zahar etxeetako arduradunak izan ziren. 900 orduko formakuntza eginen dute.

'Emakume baserritarren begirada' erakusketa azaroaren 19tik 29ra

Aitzineko TTIPI-TTAPA An Raket Rico Berako argazkilaria eta EHNE sindikatuak elkarlanean osatutako *Emakume baserritarren begirada* erakusketa Doneztebera abenduan ekarriko zela aipatu zen. Baina azkenean azaroan izanen da. Azaroaren 19tik 29ra, astelehenetik ortziralerara egonen da ikusgai, 17:00etatik 19:00etara, Alhondiga gelan, liburutegiaren ondoan.

Emakume baserritarrei egindako 60 argazkirekin osatutakoa da erakusketa, eta emakume baserritarren lana jendeak ezagutu eta ba-



loratzea, zerbitzu falta salatzea eta lehengo baserriko emakumeen omenaldia egitea dira erakusketaren helburuak. Argazkietan ageri di-

ren 24 emakumeetatik aunitz eskualdekoak dira: lau baztandarrak, bi Malerrekakoak, bat Bortziritakoak eta bertzea Bertizaranakoak.



MALERREKAKO GAZTE ASANBLADA → AURTEN LEHENBIZIKO ALDIZ

Malerrekako gazteen futbito txapelketa jokatu da abenduan frontoian

Txapelketan izena emateko epea azaroaren 20an akituko da

I. ARRIETA/ TTIPI-TTAPA

Aurten lehenbiziko aldiz, futbito txapelketa antolatzea erabaki du Malerrekako Gazte Asanbladak eta Sunbillako frontoia aukeratu du horretarako. Abenduaren 3an eta 4an jokatu dira partidak, baina apuntatzeko epea azaroaren 20an akituko da. Bitarte horretan, herriko ostaluetan dauden zerrendetan eman beharko da izena, talde bakoitzeko bortz euro ordainduta eta taldekideren baten telefonoa utzita.

Taldea osatzeko ez dute jokalarien mugarik paratu, eta nahia adina jokalaria apuntatzen ahalko dira. Dena den, edozein zalantza izanez gero, helbide elektronikoa paratu dute eskura: mga10@hotmail.es.

Itziar Mikelperizenaren margolanak

Bertziko Partzuergo Turistikoak antolatutako ehiza jardunaldi gastronomikoak ilustratzeko aurten aukeratu den irudia Itziar Mikelperizenaren margolana izan da. Bertzalde, ehi-za eta eskualdeko paisaien inguruko bere lanak ikusteko aukera ere badago Irurritako Olari jatetxean.



ARGAZKIA: ANTTON ESPELOSINEK UTZITAKOA

Arrutenea Pilota Txapelketari segida emateko gogoz

Eguraldiaren beldur izanagatik ere, azkenean ateri egin, eta urriaren 31n jokatu ziren Arrutenea Pilota Txapelketako partidak. Aitzineko alean iragarri bezala, lau partida jokatu ziren: lehenbiziko saioan, Yago Canterok 18-7 irabazi zion Mikel Eltzaurdiari; bigarren lehian, Enaitz Telletxearen partez, Pello Migelena aritu zen, eta honek 7-18 galdu zuen Oihan Canabalen kontra; hirugarren partidaren Enaitz Anso eta Iker Espelosinek jokatu zuten, eta 18-14ko emaitzarekin Anso gailendu zen. Azken saioan, azkenik, David Albiasuk 22-18 irabazi zion Ander Errandonari. Azken bi lehiak politak atera ziren, eta parekatuak. Antolatzaileak gustura gelditu ziren txapelketarekin, eta hurrengo urteetan ere segitzeko asmoa omen dute. Aipatu, bertzalde, partidaren ondotik, luntxa ere eskaini zela.

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mairindireak
mantelak
kuxinak
tosilak

1951tik
Casa Cambra
linzeria-etxea
Tafalla, 13 - IRUÑEA 948 230 634

Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak

ITUREN

UDALA → AZPIEGITURAK

Akitu dira Herriko Etxeko eta Aurtizko frontoiko teilatuko lanak

Mindegia zurgindegiak egin ditu bi obrak

Arkaitz MINDEGIA

Herriko Etxeko eta Aurtizko Koianea Txikiko teilatuak moldatu ditu berriki Udalak. Mindegia Zurgindegia izan da bi obrak egin dituen, eta aipatzekoa da, Aurtizko frontoia itxuraldatua gelditu dela, teilatua osorik moldatu eta egurra bis-tan gelditu baitzaio.



ARGAZKIAK: ARKAITZ MINDEGIA

Itxuraberritua gelditu da Koianea Txikia.

Bi nekazari gazteentzako subentzioa

Nafarroa osoko 27 nekazari gaztek milioi euroko dirulaguntza hartuko dute nekazaritza-ustiapenak zabaltzeko, eta 27 horien artean, hain zuzen, bi iturendarrak hartuko dute subentzioa. Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak emandako laguntza da.

Botikaria egunkarian

Astebatzuetan gibelera eginez, Diario de Navarra egunkariak ekartzen duen gehigarrian, herriko botikariari erreportaje ttiki bat eskaini zioten. Hemen urte aunitz daramatzen

Josetxo Lopetegik, botikari ona izatez aparte, badu berezitasun bat. Baserri eta etxeetara botikak kirola eginez eramaten ditu.

Gehigarri horretan agertzeaz gain, telebistan ere ikusi izan dugu Lopetegi.

Doneztebarrakeko saria Aurtizera

Doneztebarrak Merkatarien Elkartek Pilarikako zubian egindako kanpainan, 500 euroko saria Aurtizera etorri zen: Edurne Mikeoren-tzat izan zen. Zorionak!

ABACDEL
Analisi klinikoak
FIATC LAGUN ARD
Aresa

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

sarobe
gocetegi klinikoa

Plaza Estigarribia 25 baxo 1948 63 08 99
48700 Bera (Navarra) www.sarobe.net

LANA

LAB nagusitu da Legasa eta Lesakako Arcelor Mittal-eko hauteskundeetan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 27an egin ziren Arcelor Mittal enpresako Legasa eta Lesakako lantegietan hauteskunde sindikalak eta bietan LAB sindikatua nagusitu zen. Lesakako Arcelor Mittalen 17 ordezkari aukeratu behar zituzten langileen batzorderako. Horietatik 6 LAB-ekoak izanen dira, 5 ELAkoak, 4 UGTkoak eta Cuadros eta CCOOko bana. Legasako AMDS Processing lantegian, berri, 9 ordezkari hautatu ziren eta LABek gehiengo osoa lortu du, 5 delegaturekin. ELA 2 ordezkari lortu ditu eta UGTk eta Cuadrosek bana. Bertetik, Arcelor Mittal enpresak Legasako lantegia guttina itxi egingen duela adierazi du, 2011ko ekainean erabat itxi arte. Hor egiten den lana eta ehun langile Lesakako lantegira eramaten dira eta horretarako obrak egiten ari dira Lesakan, Bidasoa Planaren barne. Lesakako margotze eta galbanizatu lerro berria, proba gisara urte bukaeran hasteko moduan egonen dela ere jakinarazi dute, «baina modu egokian, 2011ko lehen urte erdian hasiko da lanean». 30 milioi euroko inbertsioa egingen da horretarako.

TURISMOA → ERROTA

Bisitarien kopuruan ez du jaitsiera haundirik nabaritu errotak

‘Nafarroak dohainik hartzen zaitu’ kanpainarekin turista dezente hurbildu da udan

Fermin ETXEKOLONEA

Krisiak krisi, badirudi oraingo ez duela askorik eragin errotaren egunerokoan, eta bertako arduraduna den Maxux Petrikorenak martxa onean doala adierazi digu. Jende aldetik ez omen da jaitsiera haundirik nabaritu eta nahiko jende ibili omen da. Nafarroako Gobernuaren *Nafarroak dohainik hartzen zaitu* kanpainak ere udan jende asko erakarri omen du.

Udazkenarekin batera, eskolako ikasleen eta jubilatuen bisitak izaten dira normalenak. Eta herritarrek eta ingurukoek irina erosteko ohiturari ere eusten diotela ikusi du Petrikorenak.



Errota martxa onean doa.

ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Errotaren funtzionamenduari dagokionean, uda nahiko ongi joan omen da eta ur eskasiarik ez omen da izan. Aldiz, urria, lehorragoa izan dela somatu a, baina ur arazoak ez du geldiarazi errota.

ORDUTEGIA

Irail erditik, udazkeneko ordutegia du errotak. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara egoten da zabalik, eta larunbat, igande eta jaiegunetan

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Horrela segituko du abendura bitarte.

Urte berriarekin batera, urtarrilaren 2tik Aste Santua bitarte neguko ordutegia izanen da.

ERROTA GUSTUKOENA

«Jendeari ekomuseoa baino gehiago gustatzen zaio errota»

Maxux PETRIKORENA
Errotako arduraduna

Astelehen eta asteartean itxita egonen da eta asteazken, ostegun eta ostiraletan 11:00etatik 13:00etara irekiko ditute. Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Bestalde, prezioan ez da aldaketarik izan: helduek 3 euro ordaindu behar dute sarrera; erretiratu eta haurrek 1,5 euro eta 15 lagunetik goitiko taldeak direnean, pertsona bakoitzeko 1,5 euro.

ERROTA NAHIAGO

Sortzez igantziarra baina Beran bizi den Maxux Petrikorenak 2008az geroztik errota langilea, eta aitortu digunez, gustura dago lanpostu horretan. Herritarrak ere halaxe gauden. Urte hauetan nabaritu duena hauxe dela kontatu digu: «jendeari ekomuseoa baino gehiago gustatzen zaio errota».

Jasone Astibiari elkartasuna

Akitu da Udalbiltzaren aurkako epaiketa eta sententziaren zain gelditu dira orain auzipetuek. Jakinen duzue, auzipetuen artean dago Jasone Astibia herritarra, bere garaian, zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kide izandakoa, baita Oskar Goñi beratarra ere. Lerro hauen bidez, elkartasuna adierazi nahi diegu bai Jasoneri eta bai Oskarri ere, eta bide batez, animoak eman. Biei egindako elkarizketa 3. orrialdean.

ESKAINTZA BEREZIA

BALONTZAK: Eskaintza ezin da bertze eskaintzei gehitu. Eskaintzaren baliozkotasunak: 2010/11/05 - 2011/01/05



%10eko deskontua
Denboraldiko artikuluetan



%10eko deskontua
Denboraldiko artikuluetan



%10eko deskontua
Oinetakoetan

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → GIZARTE ZERBITZUAK ANTOLATUTA

Eskualdeko gazteen topagune izanen da herria larunbat honetan

Egun osoko egitaraua antolatu dute

Esteban AROTZENA

Eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari esker, Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko gazteen topagune bihurtuko da gure herria larunbat honetan.

11:00etan elkartuko dira plazan lau herrietako neska-mutilak. Norberak eramandako gosaria jandakoan, Ganbarara joko dute, 13:30 arte iraungo duen **gazte diagnostikoaren aurkezpen eta debatean** parte hartzera. 14:00etan izanen dute **bazkaria** Gaztetxean, Xabier Silveira eta Eneko Lazkoz bertsolariak bertan direla. Arratsalderako, beste mota bateko ekitaldiak antolatu dira. 17:30etik 18:30era **kaleko jokopak** eginen dira; 19:30ean **antzerki** emanaldia izanen da Ganbaran Xagu taldearekin. 00:00etan joko du tonorra egunak, Vendetta musika talde ezagunaren **kontzertua** hasiko baita ordu horretan Gaztetxean.

AZARO KULTURALA

Aipatutako festari interes handiko beste eki-

taldi bat gehituko zaio asteburu berean. Bezperan, ostiral honetan, alegia, bere azken liburua aurkeztuko die herriki-deei Patziku Perurenak, *Goizuetan bada gizon bat* izenburua daramana, hain zuzen. 19:30ean hasiko da Ganbaran.

Lehen aipatu dugun larunbat ilunabarreko antzerki emanaldiari buruz esan behar da, due-la 12 urte sortu zela Xagu taldea Leitza. Gurean eskainiko duen *Agur Manhattan* obra bere ibilbideko laugarren antzezlan da, eta Mielmari Elozegi *Luze* taldeki-deak idatzia da. Ordubete pasatxoko iraupena du eta estresa da gidoiaren ardatza. *Luzerekin* batera, Xergio Merinok eta Juani Barriolak osatzen dute taldea.

Hurrengo astebururako iragarrita dauden azaro kulturalaren ekitaldiei gainbegirada emanez, esan, ostirala, 19an, eta 19:30etik aurrera, Nepali buruzko diapositibak botako dituela Joseba Elizegi *Yaman* oartzuarrak. Biharamunean, berriz, 17:30ean Asier Kidain magoak aktuatu du. Bi saioak Ganbaran eginen dira.



ARGAZKIA: ELENA GARCIA

Mutilak behar dira dantza taldean

Beste dantza taldeen antzera, Umore Onan ere mutil faltan daude. Argazkiko hauek bezain dotore jendaurrean agertu nahi duten guztiek hil honen 20ko 12:00etan dute hitzordua Elena eta Unairekin.



ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

Konposantua txukun eta apain

Aurte ere, Santu Guzietarako ederki apaindu zuten herritarrek kanposantua.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

25 jubilatuko yoga egiten

Herriko jubilatuen elkarteak eta Arkupeak-ek antolatzen duen yogako ikastaroa indar handiz hasi da aurten ere. 25 lagun inguru elkartzen dira Ganbaran Patxi Txokaroren gidaritzapean.

Baiatzinikin...

Poloniako futbol ligako txapelduna den Lech Poznan taldeko entrenatzailea dela Yandeko Oxemari lehengo asteaz geroztik?



gaztelu sol
iturgintza
kalekizkizia · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

Eginazu
TTIPI-TTAPAren alde
proiektu zenbakia:
15.996

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO FESTA

San Martin Eguna larunbat honetan ospatuko da

Lehiaketako argazkiak 12rako eraman behar dira

Maider ANSA

Egitarau osatua pres-tatu da aurten ere larun-batean, azaroak 13, os-patuko den San Martin Egunerako.

ELIZATIK KANPANAK

18:30ean elizatik **kanpanak** joko ditu Anttonio *Exkerrak* garai ba-teko ohitura ezaguta-ratzeko.

Garai batean, denbo-ran oso urruti joan gabe, Euskal Herriko herri gehienetan kanpanek ba-lio handia zuten berta-koentzat. Goizean egu-na argitzerako jotzen zi-ren zenbait kanpaika-da, eguerdian maldan lanean zebiltzanek *Angelusa* entzutearekin ze-kiten bazkaria laister ba-tean izango zutela au-

rrean, ilunabarrean erre-tiratzeko ere elizako kanpanak jotzen ziren... Norbait hiltzean, sua-zean, udan harria bota ez zezan *konjuroak* egin behar zirenean... Edo-zein motatako abisua zela ere, kanpaikadak joaz enteratzen zen jen-dea zer zen pasatzen zena, eta zer esanik ez, jai bezpera, meza edo bestelako festaren bat iragartzeko zenean! Egoera bakoitzean, nos-ki, joaldia ezberdina izango zen eta hori de-na ikasiko dugu Anttonio *Exkerraren* lagun-tzaz arratsaldeko lehen orduan.

'PIANO BAT BERTSOTAN'

19:15 inguruan *Piano Bat Bertsotan* eman-aldiak kantatzeko eta entzuteko aukera eskai-niko du.

Jagoba Astiazaran Zestorriben pianoa joaz inprobisatuko ditu mo-mentuan entzuleek es-



ARGAZKIAK: JABIER LEGARRETA ETA MAIDER ANSA

Kanpaien joaldiaren inguruko azalpenekin hasiko dira San Martinetako ospakizunak. Ilunabarrean, berriz, *Piano Bat Bertsotan* emanaldia izango da.

katutako euskal kantak eta Ainhua Ansa herri-tarra izango da berta-ratutakoak kantatzera gonbidatzeko ardura izango duena. Hitzekin eta kantekin jolasteko aukera polita izango da, pantaila baten lagun-tzaz, entzun nahi den kantaren letra jarraitze-ko aukera ere izango baita. Lehenengo aldia da *Piano Bat Bertsotan* Aranon izango dela eta proiektu hau entzuteko eta ikusteko azkeneko-tako aukera izango da Aranokoa, oraingo z-denbora batez uzteko

asmoa baitute bi par-taide gazteek.

AFARIA

Meza eta gero, urte-roko legean, **taloak** eta **gaztainak** erreko dira giro ezin hobean afal-tzeko. Ezkerran Borda-ko **sagardoak** bustiko ditu zintzurak eta nahi duen guztia gonbidatua dago bertara.

BITARTEAN EGIN BEHARREKO LANAK

Gogoan izan, Arano gaitzat hartuta egingo den III. argazki lehiaketan parte hartzeko, ar-

gazki bat eraman be-harko dela Kontsejura 12rako beranduezez.

Bestalde, Aranoko aldizkariaren izena era-bakitzen lagundu nahi duenak, Kontsejун ja-rrita dagoen buzoian utz dezala bere hitz auke-ratua edo izen berezia. Aranon noizbait entzu-ten zen eta aspaldian entzun ez duzun hitz ho-ri, edo dena delako ar-razoiarengatik berezia iruditzen zaizun hori, be-re esanahiarekin, paper batean idatzi eta bota 13a baino lehen! Ea hitz polit pila biltzen dugun!

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Laxteko olio erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin erretzioaren gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

Erabilitako landare olioaren bilketa

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

LEITZA

UDALA → AURREKONTUA

2,9 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2011rako

Azken bi urteotan bezala, zergak eta tasak izoztu dira

TTIPI-TTAPA

2010erako aurrekontuarekin konparatuz, 641.789 euro gutxiagoa onartu du Udalak heldu den urterako: 2.954.789 eurokoa, hain zuzen. Ezker abertzaleko eta EAren aldeko botoekin atera da aurrekontua aurrera.

Baina horrekin batera, azken bi urte hauetan egin bezala, zergak eta tasak izoztea erabaki du Udalak, eta krisia izan da horren arrazoia: «Krisialdi haundian gaudete eta Udala horretaz jabetzen delako hartu du erabakia, beti ere, zerbitzuetan ahalik eta eragin ttikiena izan dezan kalkulatz». Halaxe azaldu dio Xabier Zabalo alkateak TTIPI-TTAPari.

INBERTSIO NAGUSIAK

2011ra begira eginen den inbertsio nagusia hileria haunditzea eta horma-hilobi/kolonbario berriak egitea izanen da. 290.000 euroko diru-saila aurreikusi da horretarako. Horrekin batera, Otemotz errekatik ura ekartzeko 150.000 euro onartu dira; Erleta esko-

lan igogailua jartzeko 160.000 euro eta Haur Eskolan sukaldea jartzeko 30.000 euro.

2012an egitekoak diren Amazabaleko berurbanizazioa eta ura tratatzeko estaziorako proiektuak erredaktatzeko 54.000 euroko partida hitzartu da.

Bestalde, Zabalok jakinarazi duenez, «Udalaren zor bizia 800.000 eurotan jaitsi da azken lau urteetan».

2010EKO EGITASMOAK

2010ean Ibero inguru erostea zen aurreikusitako inbertsio nagusia, baina alkateak ar-

gitu duenez, «Nafarroako Gobernuak dirulaguntza noiz emanen digun zain gaude». Antza, «dena adostua dago eta edozein momentutan egingen da». Gobernuak Ibero interes publikoko erosketara delatzen aurreratu du, eta beraz, diruz lagunduko du, baina oraindik ez da finkatu noiz izanen den hori.

Tren geltoki zaharrean aterpea eta BTT zentroa

Garai bateko geltoki zaharra aterpe turistiko eta mendi bizikleta zentro bilakatuko da etor-

kizunean, eta horrekin batera, informazio puntua eta eskualdeko produktuen salmentarako gunea ere izanen da. Horretarako erabiliko dira Nafarroako Gobernuak bideratuko dituen 300.000 euroak. 2012an eta 2013an 150.000na euroko inbertsioa egingen du. Horrela jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuko Antolaketa Zuzendariak joan den hilabetean Bertizen.

Bestalde, atzeratu ziren Uitziko tuneleko lanak hilabete honetan bukatzea aurreikusita dago.



ARGAZKIA: HITZA

120 perretxiko mota sailkatu dituzte Mikologialdian

Balorazio «oso baikorra» eginez joan da ALKE Kultur Taldea, Mendibil Mendi Taldea eta mikologiazaleek elkarlanean antolatutako Hirugarren Mikologialdia. Urriaren 21etik 23ra, ostegunetik larunbatera, jende asko ibili zen mendira joan eta perretxikoak biltzen. Eta larunbat arratsaldean bildutakoak sailkatu ondotik, igandearekin, urriak 24, erakusketara prestatu zuten udaletxeko karrapean: guztira 120 mota bereizi zituzten. Erleta eskolako neska-mutikoek mikologiarekin lotuta egindako marrazkiak ere ikusgai izan ziren. Baina ikusi bakarrik ez, dastatzeko aukera ere izan zen plaza inguruan. Ziza, barengorri, esnegorri eta onddoen 300 pintxo banatu baitziren. Horrez gain, herritarrek egindako eta gaiarekin lotutako argazkiak herriko saltokietako erakusleihoetan ikusgai egon ziren. Mikologialdiaren harira, merkatari batzuk dendak apaintzera ere animatu ziren. Beraz, jendearen erantzuna ikusita, antolatzaileak pozik: «parte-hartzea haundia izan da».

FLASH

Ordenagailuari aplikatutako GPS ikastaroa

Mendizaleentzat ikastaro interesgarria antolatu du Mendibil Mendi Taldeak: ordenagailuari aplikatutako GPS ikastaroa. Azaroaren 20 eta 21ean izanen da Erleta eskolan, eta Jaime Eguzkitza Gipuzkoako Mendi Federazioko ki-deak eskainiko du. Ikastaroaren edukia ondokoa izanen da: compe-GPS LAND programa instalatu eta konfiguratu; mapa digitalen formatuak; WPT, ibilbide eta Track-en erabilerak; GPSaren datuen transmisioa programara eta alderantziz; irudiak esportatu eta inprimatu eta kanpoan GPSarekin egindako praktikan landutako datuen aplikazioa. Mendiko GPSaren erabilera eta oinarriko informatika menperatzea beharrezkoak izanen dira eta gehiengo ikasle kopurua 14koa izanen da. Aurrerako bazkideek lehentasuna izanen dute. 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkideek 20 euro. Izen-ematea eta informazioa: mendibilaurera@hotmail.com -en edo 636 509598-n.

Kultur agenda

Azaroaren 25ean, ostegunarekin, Patziku Perurena idazleak *Goi-zuetan bada gizon bat* bere azken liburuaren aurkezpena egingen du 19:30ean liburutegian.

Bestalde, Euskarabi-deak antolatzen duen Euskarazko zinema zikloaren barne, azaroaren 28an *Ponyi amildegian* haurrentzako filma ikusgai izanen da zinemaren, 17:00-etan.



GIZARTEA → ARESO, ARANO, GOIZUETA ETA LEITZAN EGIN DA IKERKETA

Aresoko gazteak ondoko herrietakoak baino lasaiagoak direla dio ikerketa batek

Gizarte Zerbitzuek lau herrietan egin dute azterketa

GAZTEEN IKERKETA
Gurasoen ondoan eroso bizi omen dira herriko gazteak. Hala dio ikerketak.

Juana Mari SAIZAR
Gizarte Zerbitzuek Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko gazteen inguruko ikerketa bat egin du soziologo baten bidez. Cederna Galarur erakundearen dirulaguntzarekin egin da, eta horren arabera, gu-re herriko gazteak lau herrietako lasaienak direla ondorioztatu da. Behar denean mugitzen omen dira, denak elkarrekin ibiltzen direnak dira, baina gauza berrien inguruan kezka eta jakinmin oso gutxikoak direla dio ikerketak, non-bait gurasoen ondoan eroso bizi omen dira.

Hau gizartearen isla omen da. Izan ere, helduek ere bide berdina egiten omen dute, lasai xamar bakoitza bere etxeetan egonez. Hau guztia, beti ere, aipatu ikerketaren arabera. Honekin lotuta, le-hendabiziko gazte eguna antolatu dute Goizuetan larunbat honetan, azaroak 13, eta gonbidapena egin zaie 15 urtetik hasi eta 30 urte bitarteko gazteei hara azaldu eta parte har dezaten. Egitaraua kronika honen azpiko aldean eta Goizuetako kronikan irakur daiteke.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Zuzendaritza berritzeko bozketa egin du Guraso Elkarteak

Guraso Elkarteok zuzendaritza berritzeko bozketa egin dute. Hala ere, oraindik ez dakite nola osatu, berriak eta zaharrak erdi bana, taldeka lanak banatuz edo beste modu batera. Kontuan hartuta, Guraso Elkarte herriko hainbat ekin-tzetan parte-hartzaile aktiboa dela, garrantzitsua izango da nola edo hala aurrera jarraitzea, beti ere, herriko umeek hainbat ekitaldi eta festaz gozatzen jarrai dezaten. Bestalde, pasa den asteazkenean, udazkeneko ekitaldia egin zuten eta neska-mutikoak gaztain biltzera joan ziren guraso batzuekin mendira, eta ia bi danbolinka bildu zituzten. Orain lehortzen ari dira eta hurrengo batean, erre eta jan egingo dituzte.

GOIZUETAN | azaroaren 13an
Eskualdeko gazteen egun pasa

- 10:00 Autobusa Leitzako Kiroldegitik aterako da
- 11:00-12:00 Goxaria (bakoltzak beros) plaza eta estapean
- 12:00-13:30 Gazte elkartetakoaren aurkezpena eta rebatoa Urdetxeiko gabean
- 14:00 Bakaria eta bertsoariak
- 17:00 Xabier Silveira eta Eneko Lazkoz - Gaztearen
- 17:30-18:30 Kaleko jokoa
- 19:30 Agur Makhata antzerkia Xagu Taldea - Goizuetako Azaro kulturalean, Urdetxeiko gabean
- 24:00 Konzertua Gaztearen **VENDETTA**
- 02:00 Autobusa Goizuetatik (plazatik) Leitzara bueltatu

Autobusaren irudia:

Partekidularien irudia:

2012 Guraso Elkartearen irudia:

Herriko irudiak:

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!
proiektu zenbakia: **15.996**
Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

BAZTAN

ELBETE → EZTABAIDA PRESAREKIN

Errotaberri presa ez botatzeko eskatu dute berriz elbetearrek

Ingurumen Departamentuak botatzeko agindua emanda du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak Elbeteko Errotaberri presa bota egin nahi du, baina herritarrek bere horretan mantentzearen aldekoak dira.

Badirudi, edozein momentutan bota dezaketela presa, Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak botatzeko agindua emanda duelako eta euriteen garaia pasatzeko esperoan omen daude. Dena den, herritarrek



ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Presa bere horretan uztea da elbetearren nahia.

oraindik ez dute itxaropenik galdu eta Begoña Sanzberro kontseilariari zerbait egiteko eskatu diote.

Eta horrekin batera,

bertze ahalegina sare sozialaren bidez egitea erabaki dute Elbeten.

Errotaberri presa salba dezagun izenburupean orrialdea zabaldu dute

Facebook-en eta *datago*-en ehundik gora babes jaso ditu -lerro hauek idazterakoan 200 lagun inguruk bat egina zuten sare sozialarekin-.

Sozialismoaren erakuntzari buruz solasaldia

Sozialismoaren erakuntza Euskal Herrian eta XXI. mendean solasaldia eskainiko du Sabino Cuadra Lasartek azaroaren 18an, ortzegunarekin, Elizondon. Arizkunenea Kultur Etxean izanen da eta 19:30ean hasiko da.

Santa Zezilia Eguna ospatzeko kalejira

Musikarien patroien eguna edo Santa Zezilia Eguna dela eta, azaroaren 23an, asteartearrekin, Udal Musika Eskolakoek kalejira egingen dute, 17:00etatik aitzinera, karriketan. Eguraldi txarra egiten badu, entzunaldia Musika Eskolan egingen da.



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE



IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITUA eta BAZKARIA EDO AFARIA

28€ pertsonako asteburuetan | **25€ pertsonako** astegunetan

Eskaintzaren azken eguna: abenduak 15



Errotalde z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) T. 948 45 60 45 www.balnearioelgorriaga.com

GIZARTEA → SAHARAZTANEK ANTOLATUTA

Sahararen aldeko Elkartasun Eguna eginen da azaroaren 27an Erratzun

Egun osoko egitaraua antolatu du Saharaztanek

TTIPI-TTAPA

Duela hamar bat urte hasi ziren Baztan-Bidaso aldera, udan Saharako neska-mutikoak ekartzen. Eta duela hiru urte talde moduan eratztea erabaki zutenean sortu zen Saharaztan Baztan-Bidasoako Saharar herriarekiko elkartasun taldea. Saharako basamortuan dauden errefuxiatuen kanpamenduetan, udan egiten duen bero jasangaitza dela eta, batez ere haurrak dira kaltetuenak. Hala, udako hilabete beroenak goxoago pasatzeaz gain, euren herrian jaso ezin dituzten zerbitzuak eskaintzen zaizkie hemen Saharako gaztetxoek. Bide batez, Saharako herriaren egoera zein den ezagutaraztea ere bada Saharaztanek helburua.

Aurten gure artean izan diren 17 neska-mutikoak-15 Baztan-Bidasoan eta 2 Leitzañ- irailan itzuli ziren etxera, baina azaroan Sahararen aldeko Elkartasun Eguna egitea erabaki du Saharaztanek. Azaroaren 27an izanen da Erra-

tzun eta egun osoko besata antolatu dute.

11:00ETAN HASIERA

- Aurkezpena
- Bideo emanaldia (*Hacia el mundo con tus ojos*)
- Hitzaldia eta mahai ingurua Nafaa Salem-en eskutik.
- Haurrendako puzgarriak.
- Idazkera sahararra.
- Bitartean, herrian barrena kalejira fanfarrearekin.
- Bertsolariak.

14:00ETAN BAZKARIA

- Helduen menua eta haurren menua eskainiko da.

BAZKALONDOREN

- Bertsolariak.
- Edorta abeslaria.
- Bitartean, haurrendako tailerra Birbira taldearen eskutik.
- Batukada.

19:00ETAN KONTZERTUAK

- Ufestuek, Komando Castaña, Kaskezur, Xutik, Vendetta eta Triki-dantz taldeekin kontzertua. Sarrera 7 eurotan. Kontzertuen artean argazkiak proiektatuko dira eta Jo ala Jo Kultur Taldeak emanaldia eskainiko du.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Ostatu hauetan eros dai-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten Baztan-Bidasoaldera etorri diren 15 neska-mutikoak etxean hartu dituzten familiekin.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Jende etaazienda aunitz Udazkeneko Ferian

Inoiz baino jende gehiago bildu zen urriaren 29an, Elizondoko Udazkeneko Ferian. Jendea ez ezik, azienda aunitz ere plazaratu zen, horretarako dei berezia egina baitzuten alkateak eta kargodunek. Honela, behi aziendez gain, zaldi, behor, asto, ardi eta aspaldian ikustez ez zen zerri azienda ere, euskal zerria gainera, ikusgai izan zen. Horrekin batera, Jaime Urrutia karrikan eta plaza inguruan, 200 bat postu paratu ziren. Horri esker, 18.000 euroko diru-sarrerak izan ditu Elizondoko herriak. Goiz eta eguerdiko merkatu-saltsaren ondotik, arratsaldean pilota partida ikusgarriak izan ziren itxuraberritua ageri zen Baztan pilotalekuan. Arrats partean dantzaldia izan zen eta larunbatean Atsoferie.

tezke bazkarirako txartelak: Zubi-punta (Erratzun), Intza (Elizondo) Pir-

rin (Elizondo), Ekaitza (Doneztebe), Katakua (Bera) eta Errekalde (Bera).

Helduen menuak 18 euro balio ditu eta haurrenak 10 euro.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

BAZTAN

LANA → ERREGULAZIO TXOSTENA MAHAI-GAINEAN

Marmoles del Baztan lantegiak 32 langileetatik 17 kaleratu nahi ditu

Asteazkenetik aitzinera greba mugagabea hastekoak dira

TTIPI-TTAPA

Marmola eta grani-toarekin lanean aritzen den Oronoz-Mugairiko Marmoles del Baztan enpresak 17 langile kaleratu nahi dituela jakinarazi du LAB sindikatuak oharbidez. Beregaririk onenean 50 langile edukizituen lantegi honek 32 ditu gaur egun, eta LABek azaldu duenez, «orain bi urte krisi ekonomikoak astindu zigunean plantila murrizten hasi zen». Zazpi langile kaleratu zi-

tuen enpresak hasieran, eta ondoren erregulazio txostena etorri zen. «ERE hori langileekin adostu zuenean urte batez inor ez kaleratzeko konpromisoa hartu zuen –dio LABek– eta lau hilabete beranduago 17 langileren kaleratzea paratu du mahai-gaanean». Horren harira, langileak ez kaleratzeko hartutako konpromisoa ez duela bete leporatu dio sindikatuak, «bere gestio kaxkarraren ondorioz honat ekarri gaituenez, ez dugu onartuko gure lankideen kaleratzerik».

LABen irudiko, enpresak badu «produkzioaren jaitziera agoantatzeko gaitasuna», eta egoera hobetzeko «bere alde-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Bi mila kilo sagar Kirikoketa bestan

Jo ala Jo elkarteak hamekagarren urtez antolatutako Kirikoketa bestan, 2.000 kilo sagar zituzten jotzeko, Baztangoak (Zigaurre, Elizondo eta Gamioxarreatik hurbileko sagarrondoetakoak) eta Iparraldekoak. Hala jakinarazi zuen Patxi Larralde. Sagarra xehatzen eta jotzen gogotik lan egin ondotik, Gamioxarrera hurbildutakoek muztioa dastatzeko modua izan zuten eta ondotik, kupeletan sartu zen edaria, denborarekin sagardo bihur dadin. Eguerdia eta gero, gaiteroen doinuen eta dantzarien laguntzaz, sagar gehiago ekarri zuten, astoak garraiatu zuen organ. Bazkalondoan, Faltzes, Sara, Errotxakun eta Sestaoko txalapartariak aritu ziren eta gauzez kontzertuak izan ziren Petti, On Benito eta Sestao Tx taldeekin.

tikez deus paratu» izana aitzinean, mobilizazioak ken honetan greba mugagabea hasiko dute. kritikatu du. Egoeraren iragarri dituzte: asteaz-

Gure Haragia
Nuestra Carne

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero **KOTXEKO LOREAK OPARI**
NARGARTE T. 948 59 22 00

Martikorekin zu zeu sukaldari.

DENDA
ASTELAREN ETXERAKO
8:30etik 12:30era
14:30etik 17:00etara

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ESKUBALOIA → AZAROAREN 14TIK 21ERA KROAZIAN

Bi baztandar Mediterraneoko Txapelketan ariko dira Espainiako selektzioarekin

Ainhoa Astiz
eta Leire
Ramos
Kroaziara
joanen dira

Astiz lekaroztarra eta denboraldi berria Lizarrako Itxako taldean hasi duen Leire Ramos berroetarra dira. Azken hau atezain lanetan aritzen da eta batek zein bertzeak 15 urte baino ez dituzte.

TTIPI-TTAPA

Baztango Kirol Taldean dituen 22 urteotan fruitu onak eman ditu eskubaloiak Baztanen. Ez dira ez bat eta ez bi, duten mailagatik estatuan zein kanpoan jokatzeko txartela eskuratu dutenak. Horietan azkenak BKTKo kadeteen mailan, A taldean, dabilen Ainhoa

HILAREN 14TIK 21ERA

Aldi honetan, Kroaziara joanen dira, dagoeneko han ez badaude behintzat. Izan ere, azaroaren 14tik 21era Mediterraneoko Eskubaloi Txapelketa jokatzekoa da Kroazian, eta Espainiako selektzioak bi baztandar hauek deitu ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ofizialki inauguratu dute liburutegi berria

Ateak urriaren 20an zabaldu bazituen ere, azaroaren 3an inauguratu zuten ofizialki Abastoseko Plazako liburutegi berria. Nafarroako Gobernuak eta udal ardura-dunetz gain, bertze entitatetako ordezkariak ere hurbildu ziren.



ARGAZKIA: ONDIKOL/TESTUA: MAITE OTEIZA

Ehiza jardunaldi gastronomikoak Olari jatetxeak aurkeztuak

Bertziko Patzuergoak aurtengo ehiza jardunaldi gastronomikoak aurkezteko Iruiritako Olari jatetxea aukeratu du. Hala, Patzuergoko Izaskun Goñi, Olariko Ruben Garate eta informazio orrietan nahiz kartetan dagoen irudiaren egile den Itziar Mikelperizena margolariak prentsaurrekoa eskaini zuten urriaren 28an, eskualdeko 13 jatetxetan dauden dastatzeko aukerak ezagutuz emanaz. Horren harira, aipatu, Mikelperizenaren ehizari lotutako margoak ikusgai daudela Olarin.

aroztegia 1890az geroztik
 GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
 ATAKAK HESIAK
 LANGAK BALKOIAK

Arotxa

Miguel Azcárraga
 Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
 Tel. 948 581 418 / 650 532 073
 marotxa@terra.es

TTIPI-TTAPA
 ALDIZKARIA
 SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

ANTXITONEA
 Turismo

24 ingela bitartekoak - Apartaketa
 Aste giroa eta pumeta - Hart musika eta DJ
 Gela berria sukaldar eta baserriarekin

Brasileo Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
 bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

URDAZUBI

HIRIGINTZA → UDALA

Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du zeharbideko proiektuaren esleipena

Badirudi azken sententzia behin betikoa dela

TTIPI-TTAPA

Zeharbideak hizpide izaten segitzen du. Izan ere, Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak bertan behera utzi du berriz ere Dantxarineako zeharbide egiteko proiektuaren esleipena. Proiektua 2007an adjudikatu zuen Udalak, Santiago Villares alkatearen ebazpen bidez, eta VS Ingenieria y Urbanismo SL enpresari esleitu zitzaion.

Proiektuarekin kalteak izan diren bi herritarrek, ordea, epaitegitara eraman zuten afera, eta auzitegitik etorri den azken erantzuna da proiektuaren esleipena baliogabetzat jo duena. Salaketa paratu zuten bizilagunek zeharbidea lehengora itzultzea eskatzen dute, baina



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2009ko azaroaren 27an inauguratu zuten Dantxarineako zeharbide berria.

obrak eginak dira eta joan den urteko azaroan inauguratu ziren.

Gogoratu behar da, salaketa paratu zuten bi bizilagunen lehen apelazioa ez zela onartua izan, baina berriz ere errekurtsoa aurkeztu eta arrazoia eman zien epaitegiak. Joan den urteko abenduan, zeharbideko urbanizazio lanen adjudikazioa bertan behera utzi zuen Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak, kontrata-

zio prozeduran akatsak zeudelakoan. Gisa berean, bi auzotarrek salatu zuten, «zeharbideak trafiko arazoak ez ditu moldatzen, eta autoak zona komertzial jakin batera bideratzen ditu, berte batzuk bazterrean utziz».

Baina Udalak errekurtsoa aurkeztu zuen eta uztail hondarrean arrazoia eman zion Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak. Orain, baina, berriz bertan be-

hera gelditu da 2007ko urriaren 10ean alkateak sinatutako ebazpena. Urriaren 4an onartu zen azken sententzia.

«AKATSAK» KONTRATAZIOAN

Epaitegiaren urriko sententziaren arabera, zeharbideko lanen adjudikaziorako txostenean, «aktuazio batzuetan hutsunea antzeman daiteteke», hau da, «ez-betetze formalak eta hainbat gabezia daude aur-

keztutako dokumentazioan». «Identifikatutako aurrekontu kredituaren erreferentziarik ez dago» eta «espedientearen tramitaziorik ere ez dago», beti ere sententzian ageri denez.

Badirudi, urriaren 4ko azken sententzia behin betikoa dela.

«ULERTU EZ, BAINA ONARTU BEHAR»

Auzitegiaren azken sententziaren aitzinean, Santiago Villares alkateak zera adierazi dio TTIPI-TTAPARI: «aitzineko idazkariak egin ez zuten txostenegatik kondenatu dute adjudikazioa. Horregatik zigortzea ez dugu arras ongi ulertzen, baina onartzen dugu, bertzerik ezin dugulako egin».

Proiektua egiteko Ingenieria y Urbanismo SL enpresarekin egin dako kontratua argitu beharko dela ere adierazi du Villaresek: «bere garaiain egindako lanegatik ordaindu zitzaiona onargarria den ala ez ikusi beharko da».

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

ESKOLA → URRIAREN 14AZ GEROZTIK

12 neska-mutikok erabiltzen dute eskolako jantoki zerbitzua

Bi txandatan banatuak bazkaltzen dute

Koro eta Margari

Urriaren 14tik aitzinera jantoki zerbitzua erabiltzeko aukera izanen dute eskolako haurrek. Momentu huntan 12 neska-mutikok erabiltzen dute, bi txandatan partituak: Zugarramurdiko eskolakoek 13:00etan bazkaltzen dute eta lau haur gelditzen dire. Urdazubiko eskolakoek, berriz, 13:45ean dute tenorea eta zortzi haurrek erabiltzen dute zerbitzua hau.

Bazkariaren prezioa 4,5 eurokoa da, baina egun bakanetan geldituz gero, 6 eurokoa da



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORÓ

Jantokiko lehenbiziko txandako haurrak.

prezioa. Arduraduna Mentxu Fagoaga da.

Dantza ikastaroak

Baztango dantzariak erakutsiz, gan den udaberrian hasi ziren eskal dantzen ikastaroak

hartzen, bai helduak baita haurrek ere, Akelarrean. Haurrek, gainera, arras emanaldi pulita eskaini zuten plazan Andre Mari Egunean.

Ikasturte huntan ere hiru talde eman dituzte martxan, haurren bi tal-

de, eta helduen bertze bat.

Entsaioak ortziral arratsaldeetan egiten dira, eta norbait gehiago animatzen bada Hirune edo Itziar ardura-dunekin mintzatu behar harko du.

LANA

Zertxobait beheiti egin du eskualdeko langabeziak urrian

TTIPI-TTAPA

Uda denboraldi kaxkarra izan zen lan arloan eskualdean, ekainetik irailera 121 langabe gehiagok eman baitzuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Baina joera horri buelta eman zitzaion urrian, indar haundiegirik gabe izan bazen ere: 21 langabe guttiagorekin bukatu zen hilabetea (%1,85eko jaustiera). Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, 373 kontratu egin ziren irailean, baina horietatik 32 bertzerik ez ziren mugagabeak izan. Oraindik 1.116 lagun daude langabezia Doneztebeko bulegoan.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Burlatxer Auzoa - Tfnoa: 948 582 043
ORONÓZ - MUGAIRI

HERRIKO ETXERIKO EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
Tf: 0559542519
Mozzen eta Wronpique
SARA

Iñaki Alzuyet margoak
Pintura dekoratiboa eta industriala • Fatsadak • Barnesideak
Dekorazioa: estukoak, beladurak
Lakatu eta berrintzatuak kabinak • Pladurak
Hari eta eguna amundoonenkin gaitzitzen da
Itar-etipi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
Tel: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

MONTXO OSTATU
Dantzarineatik 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - URDAZUBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
• Zuzen Anzabalean
Autua, etxebizitza, istripu eta bultzatzaileak
• Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
• Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioa, BEZA...
• Inbentarioa
• Baseri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
• Gestioa
• Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berbitzea eta edozein gisako gestioak
Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Faxe: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

SENPERE

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Kantu zaharrek etorkizun oparoa dutela erakutsi dute

70 kantari
inguru bildu
ziren elgarrekin
kantatzeko

Auxtin eta Franck

70 bat kantuzale bildu ziren Larraldean urriaren 10ean, gure euskal gizartearen kultural funtsetan ditugun kantu zahar paregabei hats berria emateko. Ikustekoa eta entzutekoa zen, izan gazte, izan erretiratu, nola eta zoin indarrarekin, ohoratuak izan diren, hor, gure aitzinekoek asmatu aire eta erranak. Bazkari bat hauta, Frantxua eta Maddik moldatua, Artxeloak taldekoek zerbitzua.

Usaian bezala, esperientziadunak hasi ziren kantatzen: Peio Minabe-

rry, Gabi Fagoaga, Janpier Soudre eta bereziki, bere boz ozen paregabearekin: Fifin Billon-Zamora. Haukien ondotik, bertze guzien bozak laster elgarri lotu ziren, kantuzko soka luzea segituzeko gaua arte. Gehienak, ahots hutsez, eta, bertzeak, Xarlex Sabarotzen akordeoia eta Martxel Braven gitararen musikarekin lagunduak. Nork ote daki zonbat kantu eman ziren?

Denen gaintetik zortzigarren Kantu Xahararren Egun hau berezia izan da, lehen aldikoz ikusi baita belaunaldi berri bat lotzen deplauki euskal kantu herrikoiak duen altxorriari. Eneko Bessonari eta Sebastien Etxeberriren inguruan gazte talde batek ereman du egunaren apailatze osoa,



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Giro ederra sortu zen Larraldeko bazkarian.

eta hori geroari pentsatuz, ez da ez gauza ttiakia! Aipagarria da berriki kantari bi multzo sortu direla herrian: Senperen kantuz eta Artxeloak!

Etorkizunean egonez, aipa dezagun Oxtikenekoak elkarteak argitaratuko duen XIX. mende kantu ahantziak bilduma. Musumigeleneko Martzel Arribillagazena, kahier batean zauzkan, 1900 inguruko kantu galdu batzuen testuak ageri dira liburuan eta abendu aldera aurkituko beharko gintuzke.

Kantu zaharrek oraino, luzaz, gure artean, bide on egin dagitutela!

Hemen, Peio Minabeno, egun horren kariatara idatzitako 3 berset:

*Agur bero bat adiskideak! Urriaren hamarrean,
Gaur zortzigarren kantu eguna gaude omore onean!
Euskal mintzaira susta dezagun gure ahale heinean,
Egun goxo bat iraganez Amotzeko Larraldean!*

*Egun berezi hunen begira aspaldian baiginauden,
Orai, helduak garenaz geroz, har dezakegu atsedean!
Probentzietan jakin bezate zer giroa dugun hemen,
Egundainotik aire zaharrak kantatzen dira Senperen!*

*Bozkarioa heda dezagun hemen guziek elkarri,
Bakoitzak bere alaitasuna orai behar du ekarri,
Norbera, bere dohainarekin, izan dadien kantari,
Lagun maiteak, bihotz bihotzez, egin zazue bazkari!*



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

SORTZEAK

- Aimar Etxeberria Irigoien**, Iruñekoa, urriaren 19an.
- Beñat Altolagirre Gartzia**, Berakoa, urriaren 16an.
- Ioritz Zubiaurre Agirre**, Zugarramurdikoa, azaroaren 1ean.
- Maddi Migeltorena Maritxalar**, Donamariakoa, urriaren 29an.
- Alain Etxepare Aiestaran**, Lesakakoa, urriaren 24an.
- Mattin Inda Luzuriaga**, Donamariakoa, azaroaren 2an.
- Naia Ugartemendia Agesta**, Sunbillakoa, urriaren 18an.
- Xuban Jauregi Gartzitorea**, Sunbillakoa, urriaren 28an.
- Itsaso Ballarena Ripa**, Elizondokoa, irailaren 30ean.
- Maren Arburua Agirre**, Leitzakoa, urriaren 21ean.
- Leire Sestao Azpiroz**, Leitzakoa, urriaren 29an.
- Oihane Rekondo Irigoien**, Leitzakoa, urriaren 29an.
- Melvil Kaiser-Chassard**, Sarakoa, urriaren 26an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

- Mikel Bertiz Ibarra** eta **Izaskun Ariztegi Elizagoien**, Sunbillakoa eta Etxalarkoa, urriaren 2an Etxalarren.
- David Saragueta Esarte** eta **Ana Maria Rivera Iribarren**, Iruñekoa eta Eibarkoa, irailaren 25ean Sunbillan.
- Jesus Uriz Ruiz de Larrinaga** eta **Kristina Sainz Zubieta**, Elizondokoa eta Sunbillakoa, urriaren 30ean Sunbillan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

- Pedro Martin Mayora Istilart**, Elizondokoa, urriaren 21ean, 92 urte.
- Jose Leon Petrirena Lasaga**, Sunbillakoa, urriaren 21ean, 85 urte.
- Nicasia Aleman Igoa**, Lekarozkoa, urriaren 23an, 92 urte.
- Carmen Goñi Etxaide**, Elizondokoa, urriaren 25ean, 91 urte.
- Jesus Etxebeste Zapirain**, Sunbillakoa, urriaren 25ean, 65 urte.
- Benito Elizondo Matxikote**, Arantzakoa, urriaren 28an, 76 urte.
- Elisa Iñarga Hermigarate**, Berakoa, urriaren 30ean, 80 urte.
- Dominika Iparragirre Almandoz**, Sunbillakoa, azaroaren 1ean, 77 urte.
- Joseph Zamora**, Sarakoa, urriaren 26an, 50 urte.
- Jean Etxegarai**, Sarakoa, urriaren 25ean, 71 urte.



Oliva TAPIA GOÑI
Lesakan, 2009ko urriaren 30ean
I. URTEURRENA

Zure begi ttikien gozoa ozpin-malkotan bustia malkoak malko hegan egiteko sortu baitzen hegaztia zeru goibelenean ere hor dagoenez eguzkia gurekin ere beti izanen da zure indarraren izpia.

ETXEKOAK



Jesus ETXEBESTE ZAPIRAIN
Sunbillan, 2010eko urriaren 25ean

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala udazkeneko egun batean joan zinen. Geroztik gure bihotzak egunero zure oroitzapenarekin betetzen dira.

ZURE FAMILIA

Egun goxoa egun baxetara gure indarrei lotan zarenen eta gure sarrinarenkin bat egun baxetara gurekin. Milla eskari.



Maria IRAZOQUI NESPRIAS
Beran hil zen 2009ko azaroaren 18an
I. URTEURRENA

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala udazkeneko egun batean joan zinen. Geroztik gure bihotzak egunero zure oroitzapenarekin betetzen dira.

ZURE FAMILIA

AIZKORA → GOIZUETAN ETA DONEZTEBEN

Nafarroako eta Euskal Herriko II. mailako txapelketak laster jokatuko dira

Nafarroakoa abenduaren 5ean Goizuetan eta Euskal Herrikoa azaroaren 19an Donezteben

TTIPI-TTAPA

Bigarren mailako aizkora txapelketak azken txanpara ailegatzear daude, bai Nafarroakoa eta bai Euskal Herrikoa ere.

EUSKAL HERRIKO BIGARREN MAILAKO FINALA

Euskal Herriko finala azaroaren 19an jokatuko da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Xabier Mindegiak Nafarroako eta Euskal Herriko finaletan parte hartuko du. Argazkia uztailean Elizondon jokatuko zen Euskal Herriko Bigarren Mailako kanporaketan ateratakoa da.

tuko da Donezteben, ferien barne, eskoletako frontoian 17:30etik aitzinera.

Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Oihan Larretxea (Bera), Ugaitz Mugertza (Mu-

triku, Gipuzkoa), Jesus Mari Lasa (Legorreta, Gipuzkoa), Manuel Kañameres (Aroztegieta,

Bizkaia) eta **Ander Erasun (Aurtitz)** ariko dira lehian.

NAFARROAKO BIGARREN MAILAKO FINALA

Nafarroako bigarren mailako finala abenduaren 5ean jokatuko da Goizuetan, 12:00etatik aitzinera. Julen Kañameres (Berriozar), Ruben Saralegi (Iruñea, Leitza), Aitor Senosiain (Olague), Juan Jose Erdozia (Etxarri Aranatz) eta **Xabier Mindegiak (Beintza-Labaien)** neurtuko dituzte indarrak.

Bi kasuetan lehen-dabiziko bi sailkatuak mailaz igotzeko txartela eskuratuko dute.

PILOTA → 22 URTEZ BEHEITIKO KATEGORIAN

Nafarroako buruz buruko txapelaren atarian gelditu da Beñat Oronoz lesakarra

Finalean Oberenako Ezkurdiak 18-9 irabazi dio Errekako pilotariari

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Lan txukuna eginda, baina Nafarroako buruz burukoan txapelik lortu gabe gelditu da Beñat Oronoz Lesakako pilotaria. Izan ere, Joseba Ezkurdiak irabazi zuen urriaren 24an Nafarroa-

ko 22 urtez beheitiko buruz buruko pilota txapelketaren finala. Oberenakoak 18-9 irabazi zion Labriten Erreka taldeko Beñat Oronoz.

Lehenbiziko tantua Oronozek egin bazuen ere, abudo hasi zen nagusitzen Ezkurdiak (4-1). Lesakarra 5-3ra hurbildu zen, baina 6-0eko partziala egin zuen Oberenakoak 11-3 jartzeko. Hortik aitzinera aldeari nahiko aisa eutsi zion faborito zen Ezkurdiak (11-4, 12-6, 14-7, 15-9 eta 18-9).

Bai Ezkurdiak, bai Oronozek, beraien saketegaitzotan oinarritu zuten jokoa: Oberenakoak sei tanto egin zituen hasierako jokaldiarekin eta Errekakoak lau. Biei ere urduritasuna nabarmendu zitzaizkien, baina batez ere tantu ikusgarriak egin zituzten. Izan ere, joan den urtean jubencil mailako txapela irabazi ondotik, lehenbiziko urtea zuen kategorian Oronozek eta finala galdu arren, txapelketa bikaina egin du lesakarrak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Beñat Oronoz jokoan.

IAZ 18 URTEZ BEHEITIKOETAN

Oronozek jubencil mailan Nafarroako buruz buruko txapelketa

irabazi zuen iaz, GRAVN txapelketan azpitxapel-dun izan zen eta bina-ka ere zenbait txapel irabazi zituen.

LASTERKETAK → XXX. EDIZIOA

Inoiz baino parte- hartzaille gehiago izan dira Lizuniagako Igoeran

Gonzalo Sukuntza andoaindarrak irabazi du

TTIPI-TTAPA | BERA

Joan den urtean bigarren gelditu zen Gonzalo Sukuntza andoaindarrak nagusitu zen urriaren 23an Beran jokaturako XXX. Lizuniagako Igoeran. Eztegarako pilotalekutik Lizuniagako kaxkora bitarteko 4,9 kilometroak osatzeko 17

minutu eta 30 segundo behar izan zituen. Bigarren, Manttale taldeko Unai Santamaria hernaniarra izan zen (17:48) eta hirugarren iazko irabazlea, Antsoaingo Daniel Sanz (17:50). Denak ere, Abdelfatah Loujari marokoarrak 2008an egindako markatik (16:03) urruti gelditu ziren eta Gure Txokoa Elkarteak hurrengo urterako gorde zituen marka hori hobetzeagatik eskaini zituen 300 euroak.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Goiko argazkian gizonezkoen podiuma eta behekoan emakumezkoena.

Emakumezkoen artean, Maika Ariztegi iturritarra ez zuen hutsik egin eta berriz ere irabazle izan zen, (22:45). Aitziber Urkiolak (24:02) eta Marisol Martinezek osatu zuten podiuma. Beteranoetan,

Angel Garate iruritarrak nagusitu zen (18:37), Iñaki Bakedano (18:50) eta Ander Arrastio (19:06) gibelean utzita.

120 KORRIKALARI

Markak marka, Lizuniagako Igoeraren kon-

turik aipagarriena parte-hartzea izan zen. Guztira 120 korrikalari abiatu baitziren-iaz baino 29 lagun gehiago-. Horieta aunitz Gure Txokoa eta Manttale taldearen atletismo eskolakoz ziren.

AIZKORA → TXAPELKETAREN LAUGARREN EDIZIOA

Jon Rekondo leitzarrak irabazi du Bizkaiko Irekia Atutxarekin batera

Minutu eta segundo bateko alde atera diote Lopez eta Mendiari

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Espero bezala, Jon Rekondo leitzarrak irabazi zuen urriaren 24an Bizkaiko Aizkolarien Irekia, Aitzol Atutxa II.a (Dima, Bizkaia) lagun zuela. Joan den urteko final bera errepikatu zen Eubako (Bizkaia) pilotalekuan eta Juan Jose Lopez Azpilikueta

(Lezaun, Nafarroa), eta Julen Mendieta (Lemoa, Bizkaia) beteranoak izan zituzten aurrez-aurre.

Sei modalitatetan 28 ebaki egin behar izan zituzten aizkolariek. Lehendabiziko hiru probetan gazteak nagusitu ziren, alde dezentearekin gainera. Hurrengo bi saioetan, ordea, Lopez eta Mendieta hobeki moldatu ziren. Azkenekoan, iraupen proban, erabaki zen dena; hasieran Lopez eta Mendieta aurretik ibili ziren, baina leitzarra eta Atutxa gailendu ziren azkenean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Rekondo lanean, atzean Aitzol Atutxa duela.

Lan guztiak egiteko 20 minutu eta 43 se-

gundo behar izan zuen Rekondo-Atutxa biko-

teak eta 21:44 Mendieta-Lopezek.

ESKUBALOIA

Baztango KTk lana gogotik egin beharko du mailari eusteko

Gaizki hasi badira ere, kategoria mantentzeko kalitateko jokalariek dituela uste du entrenatzaileak

Ohorezko Zilar Maila izen berriko kategorian ez du hasiera xamurra izan Baztango Kirol Taldeko emakumeen eskubaloia talde nagusiak. Hau idazterakoan, bortz partidatik lau galdu eta bakar berdinu egin dute. Halere, «egoerari buelta emateko moduko taldea» duela uste du Jokin Elizari entrenatzaileak, «eta saikapenaren erdiraldea egotea, arazorik gabe».

Hasiera zail eta gorabeheratsuen gibelean, hainbat arazo daukela aipatu digu Elizarik: «Entrenamenduetan huts egiteak daude, lesio larriak ere izan ditugu, eta berez plantila labur xamarra daukagu-

la eta hori entrenamenduetan nabari da, 8-9 jokalarirekin eta atezainnik gabe entrenatuta, gero partidetan nabari delako: azkenean entrenatzen den bezalajokatzen da». Halere, azken partidetan hobekuntza somatu du Atarrabiako entrenatzaileak eta «puntu bakarra lortu arren, lau ere izan genezakeen akats puntual batzuegatik ez baltz. Itxura ona ematen dugu, baina ez dugu irabazten. Lanean segitu behar dugu eta kontzentrazioa ez galdu».

Jokalarik gutti izanagatik, kalitatekoak direla uste du Elizarik, «baina gero badira bete ezin diren bertze eskakizunak: batzuk ezin dute



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ez da ongi hasi denboraldia Baztango Kirol Taldeko talde nagusiarentzat.

kanpoko bidai luzeetara joan lanagatik, ikasketak... hiru atzerritarak izan ezik ez gara talde profesionala. Horiei maximoa eskatu behar zaie, baina gainerakoek nahikoa egiten dute taldea mantentzen». Lan horretan bigarren taldea desagertu delako ere arras kexu ageri da Elizari: «BKTko bigarren talderik ez dago, jokalariek nahi izan ez dutelako, argi eta garbi». Bere asmoa talde horretako jokalariek batzuk lehen taldearekin entrenatu eta jolastea zen, «baina guziek lehen taldean jokatzeari uko egin zioten». Beraz, orai jubenilen taldeari begiratzen dio, «Joxe Iturzaeta lan ona egiten

LINDUTX-BAZTAN BKT: OHOREZKO ZILAR M.	
Talita DAIANA	BRASIL
Itsaso SALABURU HUARTE	ELIZONDO
Nerea GIL ZIAURRIZ	ELIZONDO
Irati BERRUEZO CONDON	IRUÑEA
Amaia IRIGOIEN CORDOBA	GARTZAIN
Izaskun DANBORIENA URRUTIA	AZPILKUETA
Gabriela HORVATH	HUNGARIA
Mari Jose ALEMAN ETXENIKE	IRURITA
Elisa ARRETXEIA URRUTIA	ELIZONDO
Cristina IRISARRI VIEDMA	BARAÑAIN
Itziar GOIENETXE AGIRRE	ELIZONDO
Agota SKRAPICS	HUNGARIA
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORONÓZ
Ana Isabel SOBRINO ARTAZKOZ	ELIZONDO
Entrenatzailea: Jokin ELIZARI	ATARRABIA
Delegatua: Javier PERURENA	LEITZA
Ofiziala: Fernando ETXABARRI	IRUÑEA

ari delako eta etorkizuneko jokalariek izan daitezkeenak ongi ari direlako».

Iazko talde berdintsua du BKTk, «Anabel

Sobrino izan da bigarren taldetik etorri den jokalariek bakar eta taldea modu txarrean utzi du Dimitrita errumaniarrak» dio Elizarik.



LA BAZTANESA S.A.

Autobus Enpresa

Lineako autobus eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

LINDUTX-BAZTAN BKT: JUBENILAK

Emma AYUSO BERTIZ	ELIZONDO
Ana JAIMERENA AZKARRAGA	GARTZAIN
Amaia SANZ AZPIROZ	ELIZONDO
Sara OLAIZOLA EGURROLA	ELIZONDO
Naiara IGARABIDE IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Amaia MORTALENA MASKOTENA	ELIZONDO
Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Amaia ASIAIN ZELAIA	BERROETA
Nerea ETXEBERRIA OSKARIZ	ELIZONDO
Nagore IRIGOIEN IBARRA	ELIZONDO
Leire PACHECO DOZAGARAT	ELIZONDO
Laura JAEN PEREZ	ELBETE
Itziar JORAJURIA MENDIBURU	DONEZTEBE
Garazi SANZ ARRETXEIA	DONEZTEBE
Entrenatzailea: Joxe ITURZAETA BARNO	ELIZONDO
Delegatua: JM ETXEBERRIA IRIGOIEN	AMAUIR



ARGAZKIA: ONDIKOL

Jubenil mailako neskek talde nagusia osatuko dute etorkizunean.

LINDUTX-BAZTAN BKT: KADETEAK


Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Ainara ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Raquel PARDO PEREZ	URDAZUBI
Ione KAMINO ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Ana ANTIXORENA SOBRINO	ARIZKUN
Iratxe ARRETXEIA ETXEBERRIA	BERROETA
Lorea ARRUABARRENA SAGASTIBELTZA	ELIZONDO
Intza GARTXITORENA URDANPILLETA	BERROETA
Uhaina APEZETXEIA MURUA	ERRATZU
Amaia BERTIZ GAZTELMENDI	ELIZONDO
Sara DORREGARAI	IRURITA
Itxaso ELIZETXE	ELIZONDO
Maria URRUTIA	ELIZONDO
Maialen GOÑI	ELIZONDO
Exabia CROSBY	ELIZONDO
Haizea MEOKI	ELIZONDO
Lorea GOIENETXE	ARIZKUN
Itsaso IRIARTE	ELIZONDO
Olaia ITURBIDE	ELIZONDO
Ana MINDEGIA IRIBARREN	DONEZTEBE
Entrenatzailea: Juan Jose RAMOS	BERROETA
Entrenatzailea: Txus IRIGOIEN	ELIZONDO
Delegatua: Idoia GARMENDIA ZUBIKOA	ELIZONDO



ARGAZKIA: ONDIKOL

Kadete mailako neskek ere gogoz ari dira lanean.

PRIM, c.b. Bizkortze Zentroa



- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripo eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

ESKUBALOIA

LEKAROZ: INFANTIL A

Amaia LOIARTE LOPEZ	ELIZONDO
Ane JAEN PEREZ	ELBETE
Andrea LIZASOAIN UTERGA	ELIZONDO
Jone MITXELENA LAURNAGARAI	ELIZONDO
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Leire ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Naia MITXELENA VAQUERO	LESAKA
Maite ARREGI ARRETXE	ORONOZ
Vanesa QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Stella IANTZI	ELIZONDO

Entrenatzailea: Josune ITURZAETA BARNO



LEKAROZ: INFANTIL B

Lierni OTEIZA MIGELTORENA	ORONOZ
Garazi INZIARTE ARIZTEGI	ORONOZ
Aintzane ARIZTEGI BARRENETXE	LEKAROZ
Ane GARMENDIA ZUBIKOA	ELIZONDO
Saioa SANZ AZPIROZ	ELIZONDO
Amaia REKARTE BARBERENA	ERRATZU
Ane FAGOAGA IZQUIERDO	ERRATZU
Itxaso URRUTIA MITXELENA	ELIZONDO
Uxue MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Laura BIKONDO ELIZALDE	IRURITA
Marta DORREGARAI	IRURITA
Naiara MARTIN SERRANO	ELIZONDO
Blessing LUCKY AJAYI	ELIZONDO


Entrenatzailea: Gabriela HORVATH HUNGARIA



LEKAROZ: ALEBINAK

Paula URRUTIA	ELBETE
Irune MITXELENA	ELIZONDO
Maite SOBRINO	ARIZKUN
Nerea ARRAZTOA ALEMÁN	IRURITA
Garazi SAGASETA URRUTIA	IRURITA
Maidier ALTXU AIZPURU	ORONOZ
Naroa BERRO SANTOS	ORONOZ
Maria URRRA	ELIZONDO
Sarai MARITORENA	ELIZONDO
Olaia INZIARTE	ORONOZ
Goiatz KARRIKABURU	ARRAIOZ
Isabel BAILON ITURRALDE	ELIZONDO
Ainara ETXEBERRIA GOÑI	ELIZONDO
Ainhoa ELIZAGOIEN VARELA	ORONOZ

Entrenatzailea: Iñaki URIARTE ERRATZU



BORTZIRI
UNSION ANIAK
ERAKUSKETA

Bereau etxea - LESAKA - Tel.: 948 637 266 - 948 631 511 - 607 226 891 - Faxe: 948 637 511

Errekak senior mailako bi talde kantxaratu ditu lehen aldiz

Lehen taldearen helburua lau lehenbizikoetan sailkatzea eta txapeldunen fasean sartzea da

Zortzi talde eta 140 jokalaria jarri ditu aurten lehian Doneztebeko Erreka eskubaloi taldeak, beraz, osasun onaren erakusgarri. Aurtengo berritasun nagusia, seniorretan bi talde kantxaratu dituztela izanen da. Izan ere, joan den urteko jubentzian aunitz igotzen ziren seniorretara eta dagoneko eskubaloia utzia zuten edo talde nagusian minutu gutti zuten bertze jokalaria batzuekin osatu da bigarren taldea, denek eskubaloian jokatzeko aukera izan dezaten. Aurten hiru baja garrantzitsu izan

